

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Asilo eskubidea eta generoa

-Emakumeen mutilazio genitala aztergai-

2019/20

*they have no idea what it's like
to lose home at the risk of
never finding home again
to have your entire life
split between two lands and
become the bridge between two countries*

immigrant -rupi kaur

LABURDURAK.

AAEE Autonomia Erkidegoa

ABB Asilo eta Babes Bulegoa

ATS Auzitegi Gorenaren autoa

BIA Board of Immigration Appeals

BJLO Botere Judizialaren Lege Organikoa

CEDAW Emakumeen Kontrako Diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Hitzarmena

EAO Espainiako Aldizkari Ofiziala

EB Europar Batasuna

EIGE Genero Berdintasunaren Europako Institutua

EK Espainiar Konstituzioa

EMG Emakumeen Mutilazio Genitala

GEEA Giza Eskubideen Europako Auzitegia

GEEH Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmena

GK Genevako Konbentzioa

GKE Gobernu Kanpoko Erakundea

LO Lege Organikoa

NB Nazio Batuak

OME Osasun Mundu Erakundea

PNUD Garapenerako Nazio Batuen Programa

SAN Auzitegi Nazionalaren sententzia

SAP Audientzia Probintzialaren sententzia

STEDH Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren sententzia

STS Auzitegi Gorenaren sententzia

UNAF Familien Batasun Erakundea

UNCHR Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Mandataritza

UNFPA Populazio Gaietako Nazio Batuen Funtsa

UNICEF Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa

AURKIBIDEA.

<i>I. Sarrera</i>	1
<i>II. Marko teorikoa</i>	2
1. Giza eskubideen sistema: testuingurua	2
2. Emakumeen giza eskubideak	3
3. Emakumeen mutilazio genitala giza eskubideen urraketa bezala	6
<i>III. Emakumeen mutilazio genitala</i>	8
1. Marko kontzeptuala.....	8
1.1. Definizioa eta terminologia.....	8
1.2. Tipologia	9
1.3. EMG praktikatzeko arrazoiak	10
1.4. Osasun ondorioak.....	11
2. Marko antropologikoa.....	11
3. Marko geografikoa eta prebalentzia.....	12
3.1. EMG munduan	12
3.2. EMG Espainian	13
4. EMG-ren erregulazioa.....	14
4.1. Nazioarteko legegintzan.....	14
4.2. EMG Europar legegintzan.....	19
4.3. EMG Espainiar legegintzan	21
<i>IV. Asilo eskubidea genero ikuspegitik</i>	23
1. Asilo eskubidearen kontzeptua eta marko juridikoa	24
1.1. Nazioarteko marko juridikoa.....	24
1.2. Europar marko juridikoa	25
1.3. Espainiar marko juridikoa eta espainiar asilo prozedura	26

2. Errefuxiatu izaera eskuratzeko elementuak	27
2.1. Jazarria izateko arrazoizko beldurra izatea	28
2.2. Estatuko babes falta eta estatukoak ez diren jazarpen eragileak.....	29
2.3. Herrialde barruan lekualdatzea	30
2.4. Harreman kausala.....	30
<i>V. Asilo eskubidea eta Emakumeen Mutilazio Genitala</i>	<i>31</i>
1. Genero arrazoiengatiko jazarpena.....	31
2. Zuzenbideak EMG-ri emandako erantzunak	35
2.1. Testuingurua: Kasinga kasua	35
2.2. EMG Giza Eskubideen Europako Auzitegian: GEEH-ren 3. artikulua	36
2.3. EMG-ren trataera administratiboa eta jurisprudenziala Espainian	38
<i>VI. Ondorioak.....</i>	<i>41</i>
<i>VII. Bibliografia.....</i>	<i>46</i>

I. Sarrera

Mendebaldeko egunerokotasunean murgilduta egoteak, zedarriak errotu ditu eta bidegurutze historiko baten aurrean kokatu gaitu: egunero, 37.000 pertsonak alde egitera behartuta ikusten dute euren burua haien jaioterrian ikasi, lan egin eta bizitzeko aukera lapurtuz (UNCHR, 2019: 2).

Migrazioek ukaezina den giza aberastasuna eta kultura esportatzeaz gain, tradizioak, ohiturak eta errituak esportatzen dituzte, askotan, harrera-herrialdeen egitura sozial eta juridikoetan erronkak suposatzen dituztelarik (García Ruiz, 2007: 5), bereziki, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen kontrakoak badira. Honen adibide, emakumeen mutilazio genitala (aurrerantzean EMG) dugu: menpekotasunean oinarritzen den sistema patriarkalaren izenean, eskema sozial eta kulturalak sustraitzen dituen praktika.

EMG praktikak suposatzen duen larritasunak, erantzun eta politika sendoak eskatzen ditu; horietariko bat, errefuxiatu izaeraren aitortzea delarik. Azken urteotan asko izan dira EMG dela eta asilo-eskaerak tarteratu dituzten emakumeak. Asilo eta genero binomioak, ordea, generoan oinarritutako asilo eskaerak asilo sistematik at geratzea suposatu du. Izan ere, nazioarteko babes tresna hau itxuratu zeneko testuinguru sozio-historikoaren zimenduak bere horretan diraute emakumeen oinarrizko eskubideen kontrako praktikak legitimatuz.

Zentzu honetan, «Asilo eskubidea eta generoa: emakumeen mutilazio genitala aztergai» izenburupean burututako lanaren xedeak, EMG sufritzeko edo sufritutako arrazoipean asilo eskaera tarteratzen duen emakumeari ematen zaion trataera juridikoa aztertzea eta errefuxiatu izaera aitortzeko oztopo nagusiak identifikatzea dira, besteak beste, egungo ordenamenduen eta asilo sistemaren gabeziak eta erdiespenak zehazteko. Era berean, bi dimentsioren elkarrekikotasunean funtsatu da lana: emakumeen giza eskubideen urraketan eta asilo eskubidean, zeintzuek bat egiten duten EMG-ren supostuan.

Ildo beretik, EMG dela eta tarteratzen diren asilo eskaerek sorrarazten dituzten oztopoak identifikatzeko, adierazitako dimentsioei modu banatuan heldu zaie bi galdera planteatuz: lehenik, ematen al dio giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak erantzun egokia emakumeen giza eskubideen urraketari? Eta bigarrenik, EMG sufritu edo sufritzeko arriskua duen emakumeari errefuxiatu izaera maiztasunez ez aitortzearen

zergatia Genevako Konbentzioan (aurrerantzean GK) generoagatiko jazarpena espresuki ez biltzean datza?

Planteatutako galderei erantzun ahal izateko, errefuxiatuen eta EMG-aren inguruko errebisio bibliografiko bat burutzeaz gain, ikerketa objektuaren inguruko datuen analisisia egin da. Horretarako, metodologia kualitatiboa erabili da; dokumentuetan, ikerketa espezifikoen, argitalpenetan, gidalerroetan, informeetan eta manualetan oinarritu dena. Atal normatiboa garatzeko, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea osatzen duten nazioarteko arauak eta errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidearen ikerketek baliatu gara.

Horregatik guztiagatik, lan osoan zehar oinarri izango dugun marko teorikoak baliatuta, EMG-ri eta asilo eskubideari eskainitako atalak ezberdindu ditugu. Marko teorikoaren bidez, alde batetik, emakumeen giza eskubideen urratzea eragiten duten egitura sozio-kulturala eta espresio esplizituak aztertuko ditugu eta bestetik, EMG giza eskubideen testuingurutik helduko dugu, hura, emakumea menperatzeko helburu politikoak dituen mekanismo soziala baita. Honenbestez, EMG-an barneratzeko helburuz marko kontzeptuala, antropologikoa eta geografikoa aztertuko ditugu. Halaber, EMG-ren prebalentzia arituko gara mundu zein estatu espainiarraren mailan eta, amaitzeko, haren erregulazioa ikertuko dugu; nazioarteko, Europako eta Espainiako legegintzan. Asiloaren dimentsioan haren kontzeptua, marko juridikoa eta errefuxiatu izaera eskuratzeko elementuak aztertuko ditugu, betiere, emakumeen giza eskubideen sistemarekin eta genero perspektibarekin batera. Azkenik, GK izango dugu aztergai EMG dela eta tarteratzen diren asilo eskaerei erantzun egokia emateko ezintasuna identifikatze aldera eta horretarako, genero arrazoiengatiko jazarpenaren irakurketa egingo dugu. Lanari, zuzenbideak EMG-ri emandako erantzunekin eta erantzun horietatik ondorioztatutako eboluzio jurisprudenzialarekin emango diogu amaiera.

II. Marko teorikoa

1. Giza eskubideen sistema: testuingurua

Giza eskubideak pertsona orori aitortzen zaizkion eskubideak dira. Norberaren estatusa, sexua, etnia, herritartasuna, erlijioa ... edozein izanda ere, elkarrarekiko erlazioa duten, eta zatiezinak eta independenteak diren eskubideak dira (Nazio Batuak, s.f.).

Giza eskubideen kontzeptua aldakorra da eta gizarteak haren beharrak definitzen dituen heinean zabalduz doa. Hori dela eta, giza eskubideak produktu historiko bezala aztertzeaz gain, prozesu dinamiko bezala aztertu behar ditugu (Maquieira, Valle, 2006:132) eta horretarako, nazioarteko testuingurutik heltzea beharrezkoa izango da, zeinaren berezitasuna eskubideak osotasunean egikaritzeko ezintasuna den, hots, nahiz eta nazioarte mailan eskubideen aitortze formala bultzatzen den, hauen helmen efektiboa ez da errealia.

Hala, nazioarteko testuinguruan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (Nazio Batuak, 1948) aipatu behar dugu, zeina hurrengo taulan (1. Taula) adierazten diren dokumentu eta konbentzioen aitzindari izateaz gain, gure lanaren testuingurua ulertzeko beharrezkoa den.

1. Taula	
Urtea	Dokumentua / Konbentzioa
1948	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
1953	Emakumeen Eskubide Politikoen Konbentzioa
1966	Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna
1966	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna
1968	Teheranen izandako Giza Eskubideen Mundu Konferentzia
1979	Emakumeen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Hitzarmena
1993	Vienako adierazpena eta ekintza-plana

Iturria: norberak eginak. Datuak: (Gombau Giménez, 2018: 91)

2. Emakumeen giza eskubideak

Giza eskubide kontzeptua, printzipioz, unibertsaltasunarekin eta diskriminazio ezarekin lotu beharko genuke, baina teoria feministek giza eskubideen unibertsaltasuna akastuta dagoela frogatu dute (MacKinnon, 2006). Azkeneko urteotan jasotako bizipenetan oinarrituta, erraz igar dezakegu emakumeen esperientziei erantzun bat ematen dioten eskubide izatetik urrun geratzen direla, bestek beste, perspektiba androzentriko batetik planteatutako eskubideak direlako. Hori horrela eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak argiak direnaren adierazpena aintzat hartuta (PNUD, 2019:

164) emakumeen giza eskubideei¹ buruz hitz egingo dugu nahiz eta sektore askok errepikakortzat hartzen duten.

Etengabe aldatzen ari den mundu globalizatuan bizi gara eta hura eskubideak unibertsalizatzeko erraminta bezala erabiltzearen orde, gutxiengo batzuen errekursoak handitzeko eta gehiengo baten giza eskubideen urratzeak errotzeko erabiltzen da. Funtzionamendu horrek, egia esan, gobernatzen gaituen logika kapitalista eta patriarkalari erantzuten dio.

Logika honen inpaktu negatiboek batik bat diskriminazio egoeran aurkitzen diren pertsoneri eragiten die, are gehiago, pertsekuzio egoeraz ari bagara. Azken urteotan eman den inpaktu horietako bat mugen iraunkortasuna litzateke, batez ere, genero mugena, zeinaren bidez emakume eta gizonen arteko errekurso, aukera eta botere ezberdintasunak erreproduzitzen diren (Van der Gaag, 2005).

Ukaezina da baieztatzea aipatutako logikek, inpaktu handiagoa eragiten dutela emakumeen bizitzan sexu-genero sistema dela eta. Gayle Rubin antropologoaren arabera «*sexu-genero sistema sexualitate biologikoa giza-jarduera bilakatzen duen xedapen multzoan oinarritutako sistema da, zeinaren bidez giza-beharrak asetzen eta genero erlazioak betikotzen diren*» (1975: 167-168). Hala, genero erlazioek ez dute soilik emakumezkoen eta gizonezkoen arteko harremana definitzen, baizik eta sistema soziala bere osotasunean ere definitzen dute (Ruiz-Bravo, 1999: 132). Beraz, sexu-genero sistemak giza-beharrak asetzen dituen heinean, ezberdintasun soziala eragiten du eta aldi berean, zapalkuntzan oinarritu eta elkar elikatzen diren bestelako sistemekin bat egiten du generoaren, arrazaren eta klasearen bidez hierarkizazioa eta menderatzea errotuz.

Patriarkatua da aipatutako genero sistema uztartzen duen egitura sozio-kulturala; hala, boterearen gauzatzea maskulinitatearen nagusitasunean oinarritzen den egitura izateaz gain, sexu-generoan oinarritutako sistema konfiguratzeko ere (genero rola ezarri eta diskriminazioa betikotuz) eta horrela, patriarkatuak, emakumeen aurkako egiturazko indarkeriaren bidez jarduten du (Fontenla, 2008: 33-37).

¹ Ezin dugu ahaztu emakume bakoitzak testuinguru propioa duela eta beraz, guztiek ez dituztela esperientzia berdinak, ordea, guztiek pairatzen duten diskriminazioa, emakume izatean datza.

Egiturazko indarkeriaz hitz egiteak ez du esan nahi, ordea, emakumeen egoera definitzeko ikuspuntu bakarra denik, izan ere; kultura, arraza eta etnia ezberdinak kontuan hartuta aztertu behar da emakumeen kontrako indarkeria. Argi dagoena zera da: indarkeria, modu eta gizarte ezberdinetan ager daiteke, baina gakoa emakumeekiko balio-galeran eta menderatze nahian aurkitzen dugu. Hori dela eta, emakumeen kontrako egiturazko indarkeriaz hitz egiten dugu, zeina hauen bizitza osoan presente dagoen (2. Taula).

2. Taula	
Aroa	Indarkeria moten adibideak
Jaio aurreko aroa	Sexuagatiko hautatze-abortuak ...
Haurtzaroa (0-5 urte)	Infantizidio femeninoak, abusu fisiko eta emozionalak, urte bat baino gutxiagoko nesken elikagai / tratamendu eskuratzeko bereiztua ...
Haurtzaroa (6-11 urte)	Behartutako ezkontzak, emakumeen mutilazio genitala, prostituzioa, sexu-abusuak ...
Nerabezaroa (12-18 urte)	Arrazoi ekonomikoak direla derrigorrezko erlazio sexualak, bortxaketak, jazarpen sexualak ...
Gaztaroa (14-26 urte)	Prostituzioa, lan-jazarpena, emakume-salerosketa...
Heldutasuna (27-59 urte)	Ezkontza-bortxaketa, "gerra arma dela" bortxaketak, erasoak, abusuak ...
Zahartzaroa (60 urtetik)	Alargunen eta andre-zaharren aurkako gehiegikeriak

Iturria: Espainiako asilo-sistema, emakumeen eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen giza eskubideen urraketari dagokionez lanetik aterata eta itzulia (CEAR, 2019: 16).

Datu hauek agerian uzten dute emakumeek indarkeria endemikoa pairatzen dutela eta nazioarteko komunitateak problematika honen aurrean bi estrategia erabiltzeari ekin dio (CEAR, 2009: 24): alde batetik, emakumeen giza eskubideak, sexu-eskubideak eta ugaltze-eskubideak babestu eta sustatu ahal izateko nazioarteko baliabideen formulazioak proposatzea eta bestetik, jadanik existitzen diren nazioarteko baliabideen berraztertzea - genero perspektiba erantsiz².

² Azkeneko kasu hau izango da aurrerago landuko dena asiloa oinarri hartuta.

Problematika honen aurrean, gainera, teoria feminista kritikoek giza eskubideen definizioa aztertzeko prozesuaren alde egiten dute; emakumeen parte-hartze erreala sustatzen duena, euren beharrak eta interesak barne hartzen dituena eta zuzenbide subjektutzat hartzen dituztenak eta ez erregulazio juridikoa behar duten objektu bezala (Bodelón, 2009:113).

Egia esanda, mugimendu feministek giza eskubideen kontzeptualizazio-prozesuan izan duten papera nabarmena izan da: lehen aldiz, Vienan izandako Giza Eskubideen Mundu Konferentzian (1993) giza eskubidetzat jo ziren emakumeen eskubideak. Deklarazio horrekin, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak (Nazio Batuak, 1948) adierazitakoa berretsi egin zen, hau da, giza eskubideak unibertsalak eta banandu ezinak zirela. Hartara baztertuta geratu zen beste arrazoibide hura, aldarrikatzen zuena giza eskubideak ez zirela esparru pribatuetan aplikatzekoak, hala nola familia-giroan edo ohiturazko zein erlijiozko jardunetan (del Toro Huerta, 2012: 102).

Testuinguru honetan, 1993ko Nazio Batuen Batzar Orokorrak Emakumeen kontrako bereizkeria mota guztiak ezabatzeke onetsitako Aldarrikapena aipatzea beharrezkoa da, zeinak emakumearen kontrako bereizkeria sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa bezala definitzen duen (Nazio Batuak, 1993: 1. art).

Argi dago egiturazko indarkeriaz ari garela, historikoa eta sistematikoa dena. Ez dira, beraz, bizipen indibidualak baizik eta unibertsala den egitura sozio-kultural batek dituen espresio esplizituak. Eta espresio horiek dira, besteak beste, emakumeen giza eskubideen urratzea suposatzen dutenak.

3. Emakumeen mutilazio genitala giza eskubideen urraketa bezala

Patriarkatuak, emakumea menderatzeko erlazio politiko bezala planteatzen ditu erlazio sexualak. Emakumeek pairatzen duten diskriminazioa eta pertsekuzioa euren sexualitatearen kontrolari esker gauzatzen dira, baita ugalketa gaitasunaren eta gorputzen bidez ere. Hori dela eta, sexu eskubideen eta ugaltze eskubideen³ urraketa bidez

³ Garrantzitsua da aipatzea eskubide hauen aitortzea, genero berdintasunarekin eta emakumeen ahalduntzearekin estuki lotuta dagoela. Historian zehar etengabe mugatuta egon baitira horiek egikaritzean.

gertatzen dira balio-galerak, azken finean, emakumeen kontrako indarkeria forma gehienek izaera sexuala dute.

Interesgarria litzateke EMG-ri giza eskubideen testuingurutik heltzea. Aldez aurretik, EMG inplikazio politiko, ekonomiko eta erlijiosoak dituen praktika dela azpimarratzea garrantzitsua da, baita botereari eta generoari estuki lotuta dagoen praktika dela ere (Boyle, 2002: 497-499).

EMG, emakumeen menperatzeko mekanismo soziala da eta helburu politikoak ditu, kontrol mekanismoz hornitzen baititu gizonak. Egia da, ordea, boterea ez duela soilik gizonak emakumearen gain, izan ere, gizarte patriarkaletan familiek ere dute botere hori eta emakumeek ez dute mutilazioa egitearen edo ez egitearen inguruko erabakirik hartzeko aukerarik. Praktika honek biltzen duen espresio androzentrista, gizonak emakumeen sexualitatearen gain duten boterearen isla erreal eta sinbolikoa da.

Orain dela urte batzuk EMG praktika kultural bezala justifikatzen zen eta ez zen izan XX. mendearen erdialdera arte noiz estatuak eta Nazio Batuek emakumeekiko indarkeria bezala adierazi zuten, emakumeen giza eskubideen kontrako urraketa argia zela adieraziz. Goaz praktika honek urratzen dituen giza eskubideak zehaztera 1. Taulan adierazitako dokumentu eta konbentzioak oinarri hartuta:

Argi dago EMG-k osasunerako eskubidea (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3. eta Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 6. artikulua urratzen dira) ez ezik, giza duintasunerako eskubidea (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 22. artikuluan oinarrituta) urratzen duela. Ildo beretik, osasun maila altuena izateko eskubidea (urratzen baitira Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25., Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. eta Emakumeen kontrako diskriminazioa mota guztiak ezabatzeko Hitzarmenaren artikulua guztiak) urratu egiten du. Emakumeek pairatzen dutenez gero, sexuagatiko diskriminazio orotik aske izateko (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 2. artikulua, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 2. artikulua, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 2 eta 26. artikulua eta Emakumeen kontrako diskriminazioa mota guztiak ezabatzeko Hitzarmenaren artikulua guztiak urratzen dira) eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako eskubideak argi eta garbi urratzen dira (idea hau Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 3., Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunaren 3. eta Emakumeen kontrako diskriminazioa mota guztiak ezabatzeko Hitzarmenaren artikulua

guztien urraketan oinarritzen dugu). Gainera, hurrei eginarazteak; Haurren eskubideei buruzko konbentzioaren 2,3,6,19,24 eta 37. artikulua urratzen ditu. Azkenik, argi dago Tortura eta bestelako tratu txarretatik aske izateko eskubidea urratzen dela behin EMG praktikak (besteak beste, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 5. artikulua eta Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako konbentzioaren artikulua guztiak urratzen baitira) (EIGE, 2013).

Azkenik, 2016-2030 Garapen Iraunkorrerako Helburuen 5. helburua aipatzekoa dugu (Nazio Batuen 70/01 Ebazpena, 2015), izan ere, EGM-ari zuzenean egiten zaio erreferentzia emakumeen giza eskubideen urraketatzat hartuz eta desagerrarazteko asmoz.

III. Emakumeen mutilazio genitala

1. Marko kontzeptuala

1.1. Definizioa eta terminologia

Mundu mailan eta familia-giroan ematen diren emakumezkoen osasunarentzat kaltegarriak diren praktika tradizionalak bizirik dira. Horren adibide EMG dugu: antzinako sustrai sendoak eta praktikak dutenentzako kultura-balio handia duen praktika.

Osasunaren Mundu Erakundeak (aurrerantzean OME) «nahita edo medikoak ez diren arrazoiengatik, emakumeen organo genitalak aldatzen edo lesionatzen dituzten prozedura guztiak» bezala definitu du EMG (OME, 2020).

Hainbat kasutan, EMG, haurren sozializazio prozesuaren barnean ematen den pasatze-erritua da, estatusa, etnia- zein genero- nortasuna, aintzatespen soziala eta talde bateko kide izateko ematen duten gizarte- zein erlijio-sinbolismoen egitura konplexuez lagunduta (EMAKUNDE, 2014: 15).

Antropologia feministaren eremuan eztabaidak sorrarazi ditu “mutilazio” bezalako terminoaren erabilera, praktika zigortzen duten politikekin lotzen den heinean (Walley, 1997:405-438). Beraz, zein da praktika hau definitzeko terminorik aproposena?

Hasiera batean “emakumeen zirkuntzizio” bezala ezagutzen zen praktika, baina hirurogeitahamarreko hamarkadan “emakumeen mutilazio genitala” terminoa erabiltzeari

ekin zen gizonen zirkuntsioarekin desberdintasunak mantentzen zitezkeen eta praktikaren larritasuna antzeman zedin. Laurogeitahamarreko hamarkadan “ablazio”, “emakumeen genitalen ebaketa / mozketak”... bezalako terminoak erabiltzen hasten dira “mutilazio” hitzak eragiten duen errefusa leuntzeko eta nahi den aldaketa soziala errazteko helburuz (OME, 2008: 22).

Lan honetan, ikusi bezala, «Emakumeen Mutilazio Genitala»-ri buruz hitz egingo dugu nazioarteko agendetan⁴ erabiltzen den terminoa den heinean; betiere definizio, sailkapen eta muga geografiko normatiboak (Kaplan, Nuño, 2017: 30) kanpo utzita, horrek komunitateen demonizazioa eta estigmatizazioa indartuko bailuke.

1.2. Tipologia

2002. urtean Radhika Coomaraswamy andreak, emakumearen kontrako indarkeria horren kausa eta ondorioen Nazio Batuen errelatoreak egindako «familia-giroan ematen diren praktika kulturek berekin dakartzaten emakumearen kontrako indarkeriari» buruzko Informean (Nazio Batuen E/CN.4/2002/83 Informea, 2002), posibleak diren EMG tipologiak adierazi zituen:

«(...) herrialdearen eta talde etnikoaren arabera erabilitako metodoak eta tipologiak alda daitezkeen arren, EMG-a lau talde handitan sailka daiteke:

- Klitoridektomia: klitoria eta/edo prepuzioa kentzea.
- Ablazioa / Eszizioa: klitoria eta ezpain txikiak hein batean edo osorik kentzea, ezpain handiak erazita edo erazuzi gabe.
- Infibulazioa: ezpain txikiak eta/edo handiak moztu eta jostea, bagina-zuloaren estenosia eraginez, eta klitoria kenduta edo kendu gabe.
- Askotariko praktikak, ugariak eta sailkaezinak, hala nola: klitoria, ezpainak edo biak jostea; klitoriaren kauterizazioa, bagina-zuloaren arraspatzea (angurria ebakiak), bagina ebakiak egitea (gishiri ebakia), substantzia korrosiboak botatzea...».

⁴ Termino honen erabilera nazioarteko foro askok erabiltzen dute, horien artean, Komite Inter-Afrikarrak (IAC), Munduko Osasun Erakundeak (OME), Populazio Gaietako Nazio Batuen Funttsak (UNFPA), Nazio Batuak (NB)... nahiz eta azkeneko honek, bere informe askotan «emakumeei modu kaltegarrian eragiten dieten praktika tradizionalak» hitz egiten duen.

2020ko otsailean OME-k plazaratutako azken ohar deskribatzaileak adierazitako sailkapena babestu zuen (OME, 2020).

1.3.EMG praktikatzeko arrazoiak

Emakumeen mutilazio genitala genero-indarkeriaren eta berdintasun ezaren adierazpena da, eta gizarte-, kultura- eta erlijio-egituretan oso errotuta dauden sinesmenen eta pertzepzioen bidez sustatzen eta betikotzen da (CEAR, 2013: 41). Hura praktikatzeko arrazoiak ez daude argi, hori horrela, Mari Paz García Buenok «Manual de prevención de la mutilación genital femenina: buenas prácticas» (2016: 28-29) liburuan egindako sailkapenetik abiatuko gara:

- Arrazoi soziologikoak edo kulturalak: pasatze-erritua dela praktikatzen da haurren sozializazio-prozesua gertatu dadin; estatusa, tradizioari fideltasuna, errespetua eta disziplinaren erakusgarri da. Presio soziala oso handia da, eta ohitura horri uko egiten dioten emakumeak baztertu eta bakartu egiten dituzte.
- Higiene arrazoiak: sexu-organo femeninoak zikintzat hartzen dituzte, eta gainera, askotan, garbitasun-kontzeptu horrek birjintasun-konnotazioa du (Kaplan, Bedoya, 2006: 17).
- Arrazoi estetikoak: emakumea desiragarria egiteko helburuz. Mali, Somalia, Egipto, Kenia eta Txad-en, adibidez, aldatu gabeko genitalen ideia ukatu egiten da; izan ere, antiestetikotzat jotzen dira (Shweder, 2002: 261-251).
- Arrazoi psikosexualak: feminitatearen oreka mantentzeko beharrezkoa da hura erauztea, izan ere, klitorisak pozoia isurtzen duenaren eta hazten denaren sinesmena dago. Emakumearen desira-sexuala kontrolatzeko eta ezkontza aurreko birjinitatea bermatzeko tresna da.
- Ugalketa arrazoiak: ugalkortasuna areagotzen denaren, erditzea errazten duenaren, erditze momentuan jaioberriak klitorisa ukitzen badu ezgaitasunen bat izango duenaren eta nerabeak haurdunaldiak saihestuko dituenaren usteak daude (Leye, 2007: 1-31).
- Arrazoi ekonomikoak: EMG-a praktikatzen duen pertsonak ordainsariak jasotzen ditu (arropa, elikagaiak, apaingarriak ...) eta festak ospatzen dira pasatze-errituetan non EMG pairatuko duen emakumeak opariak jasotzen dituen.
- Arrazoi erlijiosoak: nahiz eta betebeharrerlijioso ez den (gizonezkoekin pasatzen ez den moduan), zenbaitek, tradizioaren parte dela defendatzen dute.

1.4.Osasun ondorioak

EMG-ak zailtasun fisiko, psikologiko, sozial, sexual, ugaltze eta obstetrikoginekologikoak eragin ditzake. Askotan, heriotza ere. OME-k estimatzen du, urtero, 3.000 neska eta emakumeren heriotza gertatzen dela praktika honek sortzen dituen konplikazioak direla eta (de Herreros Madueño, Garabato González, Martínez Blanco, 2017:15). Honako ondorioak sor ditzakela aztertu da⁵:

Alde batetik, konplikazio akutuak ditugu. Hauek dira; min latza, shocka, odoljarria, gernu-debekua, zauri infekzioa, tetanosa, septizemia, gangrena, hausturak, trauma ondoko estresa ... Bestetik, konplikazio azpiakutuak ditugu; besteak beste, anemia B eta C hepatitisaren kutsadura, IHESaren kutsadura, behin eta berriro errepikatzen diren gernu-infekzioak, hazkuntza atzerapena, abzesuak, ultzerak, beldurra, larritasuna, trauma ondoko estresa ... Azkenik epe luzera sor daitezkeen konplikazioak ditugu, horien artean, giltzurrun-gutxiegitasuna, baginaren sarrerako estenosia, dispareunia, sexu-desiraren murrizketa, anorgasmia, antzutasuna, erditzeko zailtasunak, urradurak, fetuaren estresa, orbaintze anomaloak, gaueko terroreak, antsietatea, depresioa ... (Leye, 2017: 41-43)

2. Marko antropologikoa

Praktika honen jatorria ezezaguna da, baina milaka urteko praktika denaren zantzuak daude, izan ere, Egipton K.a. 5.000 – 6.0000 urte bitartean aurkitutako momia bati ablazioa praktikatu zitzaioela ikertu da (Pannikar, 2006: 105).

Askotan EMG Islamari lotzen bazaio ere, ez da Koranetik ateratako betebeharra, hau da, nahiz eta musulmanak diren komunitateek praktikatu ez da manu islamikoa. EMG sunna bat da -gomendioa eta ez betebeharra- (Kaplan, 2004: 206-211). Gainera, eskola Islamiko bakoitzak praktikaren derrigortasunari buruzko ikuspegi ezberdinak aurkezten ditu, nahiz eta gehiengo bat EMG debekatzearen aldekoa den (Silva Cuesta, 2017: 21).

Ezin da esan praktika islamikoa denik (Panikkar, 2006: 107); EMG erlijio kristauko (hala nola Egiptoko, Etiopiako edo Sudango koptoak) eta juduko (adibidez, Etiopiako

⁵ Egia da testuinguru pribatu batean praktikatzek zaildu egiten duela sortzen dituen konplikazioak zehatz ikertzea, ordea, honako ondorioak sor ditzakela aztertu da.

judu falaxak) herrietan ere praktikatzen baita (Gombau Giménez, 2018: 44) eta kontrakoa dirudien arren, mendebaldean ere praktika hau eman da⁶.

Beraz, Erljio Askatasun eta Sinesmenen errelatoreak adierazi bezala (Nazio Batuen E/CN.4/2002/73/Add.2 Informea, 2009), erlijioari lotutako praktika denik ezin da baieztatu, ordea, EMG tradizioak emandako araua dela eta kidezari lotuta dagoela ondorioztatu da (EMAKUNDE, 2014:17).


3. Marko geografikoa eta prebalentzia

3.1.EMG munduan

UNICEF-ek batutako azken datuen arabera 15 eta 49 urte bitarteko 200 milioi emakumek mutilazio genitalaren forma bat sufritu dute 40 herrialdetan, gutxienez (UNICEF, 2019).

Emakumeen osasuna kaltetzen dituen praktika tradizionalen errelatoreak, Halima Embarek Warzazi andreak, bideratutako azken Informean EMG kasu gehienak Afrikako kontinentean ematen zirela adierazi zuen, ordea, ez eskusiboki:

«(...) Afrikako 26 herrialdetan hedatuta dago, baina kontinentearen arabera mutilazio moduak aldatzen dira. Infibulazioa, egin daitekeen mutilaziorik larriena, Yibutin, Somalian, Sudanen, Egiptoko leku zehatzetan eta Etiopian ematen da, gehien bat. Afrikako mendebaldean, ekialdean eta erdialdean ematen diren kasuen %85 klitoridektomia litzateke. Asiako herrialdeetan ere EMG-a ematen da, batez ere, Indonesian, Malaysian eta Yemenen eta askotan, Asiako herrialde batzuetan, erritu sinbolikoa bailitzan labana organo genitaleri gerturatzen zaie, baina ebaketarik egin gabe (...)» (Nazio Batuen E/CN.4/Sub.2/2005/36 Informea, 2005).



⁶ Amerikako Estatu Batuetan eta Ingalaterran klitoridektomia erabiltzen zen ninfomania eta histeria kasuetan. Gainera, Ipar-Amerikan eta Europan klitoridektomia eta infibulazioa erabili direnaren dokumentuak existitzen dira, batez ere; ezkon-nahastea, lesbianismoa eta masturbazioa ekiditeko (Falcáo, R., 2017: 33).

Iturria: UNICEF. Datuak 2020ko otsailaren 6an eguneratu ziren, eskuragarri: <https://www.epdata.es/datos/mutilacion-genital-femenina-mundo-datos-mapas-graficos/293>

Aurreko mapan EMG-ak mundu mailan duen prebalentzia adierazten da, hura sufritu duten 15-49 urte bitarteko neskek kontuan hartuz. UNAF gobernuak kanpoko erakundearen (aurrerantzean GKE) arabera, egunero 8.000 neska eta emakumek EMG sufritzen dute mundu osoan zehar (UNAF, 2005: 13).

EMG-aren fokoak Europan, Ipar Amerikan eta Ozeanian ere aurki ditzakegu, migrazio fluxuak direla eta helmuga- herrialdeak izan baitira.


Nahiz eta azken urteotan EMG errotik kentzeko helburuarekin proiektuak bideratu diren, giza eskubideen eremuan dihardutenentzat jadaneko kontua izaten jarraitzen du eta horren adibidea 2018. urtean UNFPA-k plazaratutako Informea da non adierazten den, nahiz eta azkeneko hamarkadetan EMG ehunekoak nabarmenki jaitsi diren oraindik 3.900.000 emakumek hura pairatzen dutela urtero (UNFPA, 2019: 16). Aipagarria da, alde batetik, Informe honetan oinarrituta 2030. urterako zifra hori zerora jaitsi nahi izatearen helburua eta, bestetik, UNICEF-ek 2018-2021 urtetarako diseinatutako plan estrategikoak barne hartzen duela praktika honekiko babesak, hura helburutzat ezarriz (UNICEF, 2018: 17).

3.2.EMG Espainian

Azkeneko 20 urteetan, Saharaz Hegoaldeko Afrikatik datozen migrazio mugimenduen helmuga izan da Espainia eta honek bai errealitate kultural ezberdinen ezagupena, baita errealitate horiei aurre egiteko erronka asistentzial berriak planteatzea suposatzen du (Kaplan, Torán, Bedoya, Bermúdez, Castany, 2006: 189).

Espainian antzemandako lehenengo kasuak Katalunian eman ziren 1993. urtean. Osasun arloko profesionalek salatu zituzten eta kasu bietan absoluzio-epaiak eman ziren “lesioak sortzeko intentzionalitate eza” oinarrituta. 1996an, Palma Mallorcakoan beste kasu bat agertu zen. Egia da paraleloki emigratutako komunitateekin konpromezu batera ailegatu zela eta geroztik Espainiar lurraldean horrelako praktikak eman direnik ez da antzeman, salbu 2011. urtean Teruelen eman zen «Alcañiz kasua» (SAP 197/2011, azaroaren 15 eta STS 7827/2012, urriaren 31).

2016. urtean, EMG praktikatzen duten herrialdeetako 250.000 biztanle bizi ziren Espainian. Egia da EMG-aren hedapenaren gailurra 90eko hamarkadan hasi eta XI. mendeko lehenengo urte bitartekoa izan zela Espainian. Hurrengo mapak, EMG sufritu duten emakumeen lurralde banaketa erakusten digu:



Iturria: Kaplan A., eta A. López (2013): «Mapa de la Mutilación Genital Femenina en España 2012», *Antropología Aplicada 2*, Barcelona.

Ikusten dugunez, Katalunia da EMG sufritu duen emakume-ehuneko gehien batzen dituen lurralde. Gerora, Madril. Euskal Autonomia Erkidegoan, EMG sufritu duten 1.000-3.900 emakume bizi zirelarik.

4. EMG-ren erregulazioa

4.1. Nazioarteko legegintzan

XX. mendera arte itxaron behar da EMG-aren inguruko kontzientzia kolektiboa sortzeko. Sentsibilizazio programen eskutik bada ere, kontzientzia horrek eragina izan du, aldi berean, herriaren parte batean, harik eta komunitate nazionalaren kontzientzia kolektiboa sortu den arte. Nahiz eta legezketasun kulturaleri buruzko eztabaidek inguratzen duten EMG-ren zioa, gaur egun, nazioarteko agenden baitan dagoela baieztatu dezakegu.

Nazioarteko komunitateak EMG-aren aurrean bi zentzutan erreakzionatu du, alde batetik, prebentzio neurriak bultzatuz eta bestetik, santzio mekanismoak aurreikusiz – Europa mailan zigor zuzenbidea delarik baliatzen den tresna (Falção, 2017: 34-35).

Testuinguru honetan genero perspektibak duen garrantzia ezin dugu ahaztu, ez baita kointzidentzia biktima guztiak emakumeak izatea eta ematen diren urraketa guztiak emakumeen giza eskubideen gain ematea (Silva Cuesta, 2017: 30).

A. Nazioarteko irismena duten legezko tresnak

Hala, aurreko ideiarri eutsiz, nazioarte mailan gauzatuko dugun azterketa honen abiapuntu bezala CEDAW (1979) hartuko dugu, zeinak 5. artikuluan honakoa biltzen duen: *«emakume eta gizonen arteko nagusitasun jokaera eta edozein dela sexua, errotuta dauden estereotipoak ezabatzeko gomendioa luzatzen zaie estatuei, baita soziokulturalak diren patroiak ezabatzekoa ere»*.

Hitzarmenaren 17. artikulua, emakumearen kontrako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Komitearen sorrera aurreikusten du, zeinaren 14., 19. eta 24. Gomendioak azpimagarrienak diren (Silva Cuesta, 2017: 32):

14. Gomendioak, ablazioa ezabatzeko beharrezkoak diren neurri egoki eta eraginkorrak hartzeko gomendatzen die estatuei. Bere partetik, 19. Gomendioak neurri juridiko eraginkorrak, sartzio penalak, errekurso zibilak... planteatzeko gomendatzen die estatuei, horien helburua, emakumeak babestea delarik. Azkenik, 24. Gomendioak zuzenean EMG eta behartutako ezkontza debekatzeko dituzten legeak onartzeko gomendioa luzatzen die estatuei.

Testuinguru honetan, Haurren Eskubideen Hitzarmena (1989) aipatzea beharrezkoa da, izan ere, jakin badakigu EMG adin txikiko neskei praktikatzeko zaiela, hala *«haurren osasunarentzat kaltegarriak diren praktika tradizional guztiak abolitzeko helburuz, estatu kideek, egokiak eta eraginkorrak diren neurri guztiak hartuko dituzte»* adierazten da (Nazio Batuak, 1989: 24.3 art).

Ildo beretik eta askotan EMG praktika tradizionala, kulturala edota erlijiosoa dela argudiatzen denez gero, 1981. urteko Erlijioan edo Konbikzioetan oinarritutako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazio Batuen Aldarrikapenak *«haur baten hezkuntza erlijio edo konbikzioetan oinarritzea zilegia izango da, haurraren osotasun fisikoari edo psikikoari modu negatiboan eragiten ez dion heinean»* adierazten du (Nazio Batuen 36/55 Ebazpena, 1981: 5.5 art). Ondorioztatzen dugu, beraz, EMG-ak artikulua hau modu argi batean urratzen duela.

1993an, Emakumearen kontrako bereizkeria modu guztiak ezabatzeko Aldarrikapena onartzen da eta momentu horretatik aurrera estatuek ezin dute tradizio, ohitura edo bestelako iritzi erlijiosoan oinarrituta, emakumearen kontrako indarkeria ezabatzeko betebeharra saihestu (Nazio Batuak, 1993: 4. art). Gainera, 1998. urtean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak, emakumearen osasuna kaltetzen duten praktika tradizionaleri buruzko Informea ematen du, horietako bat EMG dela ondorioztatuz (Nazio Batuen E/CN.4/1998/54/Add.1 Informea, 1998). Informe honen edukia gerora etorriko den 56/128 Ebazpenean islatuko da (Torres Fernandez, 2008: 3-6).

90eko hamarkadara arte ez zen EMG nazioarteko dokumentuetan espresuki adierazi. 1994. urtean El Cairon, Populazioaren eta Garapenaren Nazioarteko Konferentzia ospatu zen, non EMG praktikatzen zen herrialdeetan hura debekatu zedin sustatutako Gizarte Ekintzen Programak enfasia jarri zuen emakumeen giza eskubide eta ugaltze eskubideetan (Nazio Batuak, 1994: 4.22 paragrafoa).

Urtebete geroago, Pekinen, Emakumearen IV. Mundu Konferentzia (1995) ospatzen da eta emakumearen eta haurren osasunarentzat kaltegarriak diren praktika tradizionalen ezabapenerako ekintza-plan bat garatzen da EMG espresuki kondentatuz (Nazio Batuak, 1995: 9. puntua).

Batzar Orokorraren Emakumearen osasuna kaltetzen dituzten praktika tradizionaleri buruzko 56/128 Ebazpena aipatu behar dugu (Nazio Batuen 56/128 Ebazpena, 2002), Populazioaren eta Garapenaren Nazioarteko Konferentziaren edukitik ez dena aldentzen, baina emakumeen independentzian enfasia jartzen duena eta . Gainera, EMG emakumearen giza eskubideak urratzen dituen praktika dela adierazten duen lehenetariko Ebazpena da, estatuei beharrezko neurriak hartzeko eta diskriminazioa bermatzen zuten legeak indargabetzeko eskatu zitzaielarik.

2006. urtean, Batzar Nagusiak, Nazio Batuen Kontseilu Ekonomikoaren eta Sozialaren erabakiak eta neurriak indartzeko helburuz, emakumearen kontrako praktika kaltegarriei aurre egiteko ekintza programa onartu zuen, EMG aipatuz (Torres Fernandez, 2008).

2013. urtean Nazio Batuen Batzar Nagusia EMG-ari buruzko lehenengo ebazpen zehatza onartu zuen: EMG-aren ezabapenerako esfortzuen areagotzea (Nazio Batuen 67/146 Ebazpena, 2013).

Azkenik zuzenbide erregionalekoak diren, baina EMG-aren testuinguruan balio handiko bi ekimen aipatuko ditugu: Herrien eta Giza Eskubideen Afrikako Karta -Bajul Karta, alegia- eta Europar Kontseiluko emakumearen kontrako indarkeria eta etxeke indarkeriaz ohartarazteko Konbenioa -Istanbuleko Konbenioa, alegia-.

B. EMG praktikatzen den erregioen marko juridiko eta arau-emailea

Marko teorikoan landu bezala, EMG Ekialde Ertainean, Asiako ekialdean, Latinoamerikako etnia batzuetan eta Afrikako zenbait herrialdetan praktikatzen dela jakin badakigu. Gutxi dira, ordea, praktika honen debekua ezarri dutenak Afrikako kontinentetik at: Yemen (2001), Kolonbia (2009) eta Irakeko Kurdistana (2011) (Thill, 2017: 107). Horregatik eta Saharaz Hegoaldeko Afrika migrazio-fluxuen mugimendu handiena izateagatik, hurrengo lerroetan Afrikako kontinenteak EMG-aren inguruan zehaztutako markoari buruz arituko gara.

EMG-aren kontra borrokatzeko marko arauemailea 1990. urtean hasten da Afrikan. Izan ere, urte horretan Haurren Eskubideei eta Ongizateari buruzko Afrikako Gutuna onartu eta 1999. urtean indarrean sartzen da. Horretan, haurren ongizatea, duintasuna eta haztea kaltetzen dituzten praktika sozial eta kulturalak ezabatzeko beharrezko neurriak hartzeko estutzen dira estatuak -praktika kaltegarri kontzeptuaren barruan EMG ulertzen delarik (Silva Cuesta, 2017: 35).

1998. urtean, emakumearen kontrako indarkeriari buruzko Addis Abeba Aldarrikapena onartzen du Afrikar Batasunerako Erakundeak. Horretan, EMG-aren kontrako lege nazionalen aldarrikapena bultzatzen da. Urte bat geroago, Mendebaldeko Afrikako Batasun Ekonomiko eta Monetarioak Uagadugú-ko Aldarrikapena onartzen du, zeinaren bidez EMG kondenatzeko beharrezko lege nazionalen proposamena helarazten duen (Agirregomezkorta Ibarluzea, Fuertes Cabrera, 2011: 42-44).

Giza eta Herri Eskubideen Afrikako Gutunaren Protokoloak garrantzi nabarmena du (2006). Izan ere, haren 5. artikulua honakoa ezartzen du: *«estatu kideek emakumearen giza eskubideak negatiboki erasotzen dituzten eta nazioarteko arauak urratzen dituzten edozelako formak kondenatzeko dituzte [...] baita EMG forma, medikalizazio eta paramedikalizazio guztiak ere»* (Thill, 2017: 107-109)

2006an onartutako Gazteen Afrikako Gutunak gazteentzako kaltegarriak diren praktika sozial eta kulturalak ezabatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra ezartzen die estatuei, praktika horien barruan EMG ulertzen delarik (Gombau Giménez, 2018: 64).

Aipatutako konpromezuekin bat, EMG-aren kontrako legeak onartu dituzten 24 herrialde afrikar ditugu (hurrengo taula). Beste herrialde batzuetan, ordea, lesioei aplikatzen zaizkien xedapenen bidez zigortua izango da EMG (Thill, 2017: 108-109).

Pais	Año de aprobación
Benín	2003
Burkina Faso	1996
República Centroafricana	1966, 1996
Chad	2003
Costa de Marfil	1998
Yibuti	1995, 2009
Egipto	1996, 2008
Eritrea	2007
Etiopía	2004
Gambia	2015
Ghana	1994, 2007
Guinea	1965, 2000, 2006
Guinea-Bissau	2011
Kenia	2001, 2011
Mauritania	2005
Niger	2003
Nigeria	2015
Senegal	1999
Somalia	2012
Sudán (dos estados):	
Estados de Kordofán del Sur	2008
Estados de Al-Gedaref	2009
Tanzania	1998
Togo	1998
Uganda	2010
Zambia	2005, 2011

Iturria: Kaplan, A., eta Nuño, L. (2017): «Guía Multisectorial de Formación Académica sobre Mutilación Genital Femenina». Madrid: Dykinson. 108 orr

2016. urtean, Parlamentu Panafricanak, Afrikako Batasunaren organo legegileak, EMG debekatzeko akzio plana sinatzen du, praktika Batasuna osatzen duten 50 estatutan debekatua izan dadin (Gombau Giménez, 2018: 65).

Lan honen garapenean, Sudaneko Gobernuak EMG debekatu du herrialde osoan, non emakumeen %86,6-k hura sufritu duten⁷.

⁷ Albistea eskuragarri: https://www.lasexta.com/noticias/internacional/criminalizacion-mutilacion-genital-femenina-llega-sudan-penalizara-tres-anos-carcel_202005045eb0095242a4c30001ad1187.html

4.2.EMG Europar legegintzan

Emakumeen giza eskubideen urraketa honen aurrean eta EMG-ari aurre egiteko, Europar legegintza pean neurri ezberdinak proposatu izan dira. Hurrengo lerroetan, neurriak adieraziko ditugu horiek bultzatu dituzten nazioarteko erakundeak ezberdinduz. Lehenik, Europar Batasunaren (aurrerantzean EB) markoan proposatutako neurriak aztertuko ditugu; gerora, Europako Kontseiluan hartutako erabakiak aipatzeko.

Hartutako lehenengo neurriak, 1986ko ekainaren 11ean EB-ko Parlamentuaren Ebazpenaren⁸ 47. artikuluaekin datoz: ablazioa eta infibulazioa debekatzen dituzten legeak aplikatzeko eta programa-hezitzaileak sustatzeko eskatzen zaie autoritate nazionalari.

1996ko uztailan, El Cairoko Auzitegi Administratiboak Egiptoko Osasun Ministerioak emandako argibidea deuseztatu zuen. Argibide horrek, EMG ospitale publikoetan praktikatzeko debekua ezartzen zuen eta Estatu Kontseiluak hura ontzat hartu zuen. Horren aurrean, 1997ko uztailaren 10ean Europar Parlamentuak Ebazpen bat onartzen du, zeinaren bidez Egiptoko Gobernuak eta haren Osasun Ministerioak erabakitakoaren alde jartzeaz gain, praktikaren ezabapenaren inguruko kanpainarekiko babesa ere adierazten duen. Ebazpen horretan bertan, EMG dela eta asiloa eskatzen duten emakumeei babesa emateko beharra helarazi zuen Parlamentuak -aurrerapauso itzela izan zelarik (Silva Cuesta, 2017: 40).

Europar Parlamentuak, 2000. urtean EMG-ari buruzko Ebazpen Proposamen bat igortzen du, zeinetan EMG «emakumearen osasun fisiko eta psikikoari kalte handia eragiten dion eta inolako arrazoi kultural edo erlijiosoarekin justifikatu daitekeen praktika» dela adierazten duen. Hala; Kontseiluari, Komisioari eta estatu kideei «EMG-a osotasun pertsonalaren kontrako krimen bezala» tratatzeko eskatzen die (Silva Cuesta, 2017: 41).

1998. urtean Europar Batasunak Göteborg-en EMG-ari buruzko lehenengo konferentzia antolatzen du eta 2001ean, konferentzia horretan oinarrituz, 2000/2174 Ebazpena ematen da, zeinaren bidez EMG bezalako praktiken erabilera salatzen den hura

⁸ Ikus: DOCE, C Seriea, 176. zenbakia, 73 orrialdea eta hurrengoak.

espresuki 31. zenbakian aipatuz (Europar Parlamentuaren 2000/2174 Ebazpena, 2001: Y atala)⁹.

Urte horretan ere Europar Parlamentuak EMG emakumeen giza eskubideak larriki urratzen dituen praktika bezala identifikatzen duen Ebazpena onartzen du (Europar Parlamentuaren 2001/2035 Ebazpena, 2001). Ebazpena sendoa da eta edozein dela ere EMG praktikatzeko forma, hura delitutzat tipifikatzeko beharra luzatzen die estatuei. Gainera, mutilazioa egiten duen pertsona zigortzeaz gain, hura egitera bultzatzen, laguntzen edo aholkatzen duen pertsona zigortzera behartzen ditu estatuak. Europar Parlamentuak, 1247 (2001) Ebazpenaren bidez aurreko guztia indartu zuen (Hermida de Llano, 2017).

Europako Kontseiluak bultzatutako neurriak adierazi aurretik, jadanik aipatu dugun Nazio Batuen Batzar Nagusiak argitaratutako 67/146 (2013) Ebazpena azpimarratu behar dugu; izan ere, EB-k EMG ezabatzeko konpromezu handia hartu zuen haren bidez. Horri, Europar Komisiaok 2013. urtean helarazitako COM(2013)833 Komunikazioa gehitu behar diogu, zeinak honako betebeharrak ezarri zizkien estatu kideei:

- EMG-aren ezabapenerako GKE-k planteatutako lana babestea.
- EMG praktikatzen duten herrialdeek proposatutako programak babestea, nahiz eta EB-ren parte ez izan.
- EMG-aren inguruan errekurtsoak eskaintzen dituen Genero Berdintasunaren Europar Institutua bultzatzea.

Egia da, ordea, aipatutako Komunikazioaren aurretik EB-k EMG genero indarkeria eta emakumeen kontrako praktika kaltegarritzat hartu izan zuela 2010-2015eko Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako Estrategian (Europar Komisiao, 2010), Haurren Giza Eskubideen Europar Batasuneko Agendan (Europar Komisiao, 2011), 2015-2019ko Europar Batasuneko Giza Eskubideen eta Demokraziarako Ekintza-Plangintzan, 2016-2020 Genero Ekintza-Plangintzan eta Garapen Sustagarriaren 2030ko Agendan ere bai.

Amaitzeko, Europar Parlamentuak EMG-ari buruz emandako azken Ebazpena aipatuko dugu, hots, 463/26 (2018ko otsailaren 7). Ebazpena, EMG ezabatzeko hartu

⁹ 31. zenbakian honakoa adierazten da: «*edozein dela praktika, emakumearen osasuna kaltetzen duen heinean -horien artean ablazioa- estatuak praktika hori ezabatzeko dagozkion neurriak hartu beharko dituzte legezko markoari dagokionez*».

beharreko erabakiak indartzera bideratu zen, hots, praktika tipifikatzearen eta zigortzearen, erregio ezberdinen arteko kooperazioaren eta sentsibilizazio programen beharra indartzera bideratu zen. Horrenbestez, asko izan dira EMG zigortzeko edo tipifikatzeko erabili diren formula juridikoak, baina xedapen penal zehatzak dituzten herrialdeen artean Austria, Belgika, Kroazia, Txipre, Danimarka, Alemania, Irlanda, Italia, Malta, Herbehereak, Norvegia, Portugal, Suezia, Suitza, Erresuma Handia eta Espainia aurkitzen ditugu (Leye, 2017: 110).

Europako Kontseiluari dagokionez, EB-k jarraitutako ildo mantentzen duela adierazi behar dugu. Aipagarriak dira, alde batetik, 2009. urtean Europako Kontseiluaren Asanblea Parlamentarioak onetsitako Komunikazioa, non estatu kideei legedi nazionala aldatzeko deia luzatu zitzaien praktika hau debekatu eta zigortzeko nahian (Europako Kontseilua, 2009); eta bestetik, 2011. urtean Europako Kontseiluak onartutako Istanbulko Konbenioa. Konbenioa, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeo indarkeria saihesteko planteatutako lehenengo tresna juridiko loteslea da eta haren 38. artikulua honakoa adierazten du:

«aldeek dagozkion neurriak hartuko dituzte honako egintzak delitu moduan tipifikatu ahal izateko, nahita eginak badira: a) infibulazioa edo eszisioa, hots, emakume baten ezpain handiak, txikiak edo klitorisa moztzen badira; b) aurreko puntuan adierazten direnak egitera emakumea behartzen bada edo horiek egiteko baliabideak ematen bazaizkio; c) lehenengo puntuan adierazten diren egintzak egitera adin txikiko neska behartzen bada edo horiek egiteko baliabideak ematen bazaizkio».

Beraz, Istanbulko Konbenioa EMG-ri erreferentzia espresoa egiten dion nazioarteko beste tresna da, zeinaren bidez, eta modu argian, haren praktika delitutzat tipifikatzeko neurriak hartzerantz bultzatzen dituen estatu sinatzaileak.

4.3. EMG Espainiar legegintzan

1983ko abenduaren 16an, Espainiako Estatuak CEDAW eta 2014ko abuztuan, Istanbulko Konbenioa berresten ditu. Hartara, arau guztiz lotesleak bilakatu dira erakunde zentral, autonomiko zein tokiko erakundeetan emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko. Aipatu bezala, EMG-aren praktikari Espainiar Estatuak zigor zuzenbidearen bidez heltzen dio.

Atzerritarren etorrerak suposatu duen errealitatearen aurrean espainiar legegileak, EMG lesio delitu bezala tipifikatu du Zigor Kodean, zeina 149.2 artikulua barne hartzen duen.

EMG-aren testuinguruan jurisdikzio unibertsalaren printzipioa garrantzi handikoa da, hori dela eta 6/1985ko BJLO, 1/2014 LO-ren bidez erreformatu zen EMG, Espainiar lurraldetik kanpo jarraitzeko aukera aurreikusiz. Hala, 23. artikulua honakoa jasotzen du:

«4. Orobat, Espainiako jurisdikzioaren ardura izango dira espainiarrek edo atzerritarrek nazio-lurraldetik kanpo egindako egitateak, baldin eta, Espainiako legearen arabera, honela tipifikatuak izan badaitezke adierazitako baldintzak betetzen direnean:

1) Emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren prebentzioari eta haien aurkako borrokari buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 11ko Hitzarmenean araututako delituak, baldin eta:

1) prozedura espainiar baten aurkakoa bada; edo 2) prozedura Espainian bizi ohi den atzerritar baten aurkakoa bada; edo 3) egitateak gertatu ziren unean espainiar nazionalitatea zuen edo Espainian bizi ohi zen pertsona bat izatea delituaren biktima, betiere delitua egozten zaion pertsona Espainian badago».

Beraz, jurisdikzio unibertsalaren printzipioaren bidez (Nazioarteko Zuzenbidearen Institutua, Krakovia, 2005eko abuztuaren 26ko Ebazpenaren bidez ezarritakoa), atzerritarrek atzerrian egindako delituengatik (adibidez Espainian bizi den, baina Senegalera doan familia haren alabari EMG praktikatzera) Espainiar Estatuan epaituak izan daitezke bermatzen da (Suciú Dorina, 2016: 2-16). Egia da, ordea, Silva Cuestak (2017: 349) adierazten duen bezala jazarpena zailtzen dituzten baldintzak ezartzen dituela legeak eta babesgabezia egoera baten aurrean egongo ginatekeela, demagun, biktima espainiarra izango balitz, baina erantzulea ez.

Interesgarria litzateke, Zigor Kodeak (1/2015 LO-aren erreformaren ondorioz) 22. artikuluan biltzen duen genero arrazoiagatik astungarria aipatzea. Nahiz eta artikuluan bertan EMG-ari erreferentzia ez egin, praktika bera emakumearen kontrako indarkeriatzat hartzen denez, Espainiar Auzitegiek EMG-aren aurrean aplikatu izan dute (Gombau Giménez, 2018: 70).

Autonomia mailan, zenbait Autonomia Erkidegok (AAEE) EMG kontuan hartu dute gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasun, baita emakumearen kontrako indarkeria arauetan ere. Egun, soilik Katalunia eta Valentzia dira euren araubide propioetan EMG barneratu dituztenak (Hermida de Llano, 2017: 61).

Kanariar uharteak, Kantabria, Madril, Aragoi, Katalunia, Errioxa eta Valentzia bezalako AAEE-k gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunari eta emakumearen kontrako indarkeria buruzko araudi propioetan EMG-ari erreferentzia egin diotela aipatu beharko genuke (Kaplan, Bedoya, 2006: 32-49).

2015eko urtarrilaren 14an, Osasun Sistema Nazionalaren Kontseiluak EMG-aren kontrako osasun protokoloa onartu zuen Nazio Batuek momentura arte emandako Ebazpenetan oinarrituta. Egun, Espainiar Estatu osoan aplikagarria da (Espainiako Gobernua, Osasun Ministerioa, 2015).

IV. Asilo eskubidea genero ikuspegitik

Azken urteotan eman den migrazio-mugimendua garrantzi handiko fenomeno sozio-demografikoa izan da. Laurogeiko hamarkadaz geroztik, «errefuxiatuen esperientziaren feminizazioaz» hitz egiten hasten da (Miguel Juan, 2008: 2) egun ematen den lekualdatze arrazoi nagusia, generoan oinarritutako indarkeria baita¹⁰. Tamalez, zuzenbideak ez dio errealitate honi erantzun bateratua eman eta emandako erantzunak, nazioarteko arauen eskema patriarkalak jarraitu dituzte, zeinak berdintasunaren kontrako anakronismoak diren.

Beraz errefuxiatuen nazioarteko zuzenbidea, jadanik garatutako emakumeen giza eskubideen sistemarekin eta genero perspektibarekin bat ulertu behar dugu. Jarraian, genero jazarpena¹¹ pairatzeagatik, bereziki EMG pairatzeagatik, lekualdatu behar duten

¹⁰ CEDAW-k generoan onarritutako indarkeria, «*that is directed against woman because she is a woman or that affects women disproportionately*» dela adierazten du eta hura, lekualdatze gehien zergatia dela baieztatu du (Komitearen 19. Gomendioa, 1992: 6. puntua) eskuragarri: <https://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/recommendations/recomm.htm>

¹¹ Genero jazarpena, genero arrazoiengatik edo genero identitateagatik ematen den jazarpena da, zeinak giza eskubideen urraketa suposatzen duen.

emakumeen egoera aztertuko dugu eta horretarako, lehenik eta behin, asilo eskubidearen nondik norakoak zehaztuko ditugu.

1. Asilo eskubidearen kontzeptua eta marko juridikoa

Lopez Garridok (1991:18) asilo eskubidea honela definitzen du: *«pertsone orori jatorrizko-herrialdean jazarria izateagatik aitortzen zaion eskubidea da, zeinaren bidez beste herrialde bateko gizarteak eta autoritateek hura babesten duten»*.

Asilo eskaera, beraz, errefuxiatuaren estatutua aitortzeko pertsona batek egiten duen eskaera formala da, non pertsonaren ihes egiteko arrazoia adierazteaz gain, asilo eskaeraren zergatia islatzen den.

1.1. Nazioarteko marko juridikoa

Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko GK da, 1967ko New Yorkeko Protokoloarekin batera, asilo-eskubidearen nazioarteko erregimenaren funtsezko testua. Nazioarteko tresna honen ekarpen nagusiak, errefuxiatuaren definizioa eta ez-itzulketaren printzipioa dira.

Honela definitzen du «errefuxiatua» GK-ren 1 A (2) artikulua: *«arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarria izateko beldur arrazoizkoa duen pertsona, bere nazionalitateko herrialdeetik kanpo dagoena eta herrialde horretako babesa lortu ezin duena edo beldur horiengatik lortu nahi ez duena»*.

GK-ren bigarren ekarpen nagusia ez-itzulketa edo *non-refoulement*¹² printzipioa da, hots, GK berresten duten estatuek debekatuta dute pertsona bat jatorrizko herrialdera kanporatzea edo itzultzea, baldin eta herrialde horretan bere bizitza edo askatasuna mehatxupean badaude, edo torturak, tratu ankerrak edo iraingarriak pairatzeko edo oinarrizko giza eskubideak larriki urratzeko arriskua badu¹³.

¹² Itzulketaren aurkako debekua 1951ko Genevako Konbentzioaren 33.1 artikuluan jasotzen da asilo-eskubidearen nahitaezko berme gisa.

¹³ *Non-refoulement* printzipioaren arabera, itzulketa soilik onartua izango da azken instantzian, hots, herrialdearen segurtasuna bermatzea beharrezkoa denean (Hathaway, 2011: 257-320).

Esan genezake, beraz, errefuxiatu izaerak estatutu “berezia eta pribilegiatua” konfiguratzeko duela gainontzeko atzerritarrei ezartzen zaien estatutuarekin konparatuz (Santolaya, 2011: 26) eta hemen datza, bereziki, GK genero perspektiba batetik interpretatzeko garrantzia, emakumeen esperientziak gutxietsi ez daitezen bermatzeko.

GK idatzi zen momentuan ez zegoen emakumearekiko diskriminazio sentsibilizaziorik (Kahale, 2011: 986) eta ez zen izan laurogeiko hamarkadara arte, non Nazio Batuen baitan, genero arrazoietan oinarritutako jazarpena planteatzeari ekin zitzaion (Jiménez Sánchez, 2017: 276).

Genero perspektiba falta honen aurrean, Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Mandatarien Bulegoak (aurrerantzean UNHCR), Gidalerroak¹⁴ eta Ondorioak¹⁵ argitaratu ditu, zeinak nahiz eta lotesleak ez izan, asilo-politiketan genero zeharkakotasuna txertatzeko eta GK-ren interpretazio egokirako garrantzitsuak diren.

1.2. Europar marko juridikoa

EB-ko markoan, Tampere Kontseilua (1999) eta 2011/95 Direktiba dira aipagarrienak gure gaiari dagokionez. Tampere Kontseiluak, Asilo Sistema Europar Komun baten sorrera planteatu zuen gutxieneko estandar batzuk mantentzeko estatu kide guztietan. Momentu horretan, asilo prozedura eraginkor bat lortzeko baldintzak ezarri ziren eta Hagako Kontseiluan (2004) jadanik existitzen ziren arauen erreformak bultzatu ziren¹⁶.

Geroztik, EB-k direktiba ezberdinak argitaratu ditu non estatu kideek bete beharreko gutxienekoak adierazten diren. Direktiba guztietatik 2011/95 (2011ko abenduaren 13) aipatzea interesgarria litzateke non generoagatiko jazarpen arrazoiei dagokionez honako

¹⁴ Esaterako: Emakume Errefuxiatuen Babeserako Gida (1991), Nazioarteko Babes Gida: genero arrazoietan oinarritutako jazarpena (2002), Emakume errefuxiatuen aurkako genero eta sexu indarkeriari erantzunak (2003), Sexu orientazio eta genero identitateari buruzko Gida (2008), Emakumeen Mutilazio Genitala pairatu duten Errefuxiatuen Gida (2009) ...

¹⁵ Esaterako: 1988ko 39. Ondorioa, 1989ko 60. Ondorioa, 1990ko 64. Ondorioa, 1995ko 77. Ondorioa eta 2006ko 105. Ondorioa ...

¹⁶ Nahiz eta Europar Komisia 2007. urtean plazaratutako Liburu Berdean erreformak egin ez zirela adierazi zuen, eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2007:0301:FIN:ES:PDF>

aurrerapausoak ezarri zituen: alde batetik, jazarpena estatuko agenteak ez direnek egitea posiblea dela estatuak biktimari babes eman ezin edo eman nahi ez dion kasuetan eta, bestetik, sexuak, gizarte-talde jakin bat konfiguratu dezakela.

1.3. Espainiar marko juridikoa eta espainiar asilo prozedura

Espainiar Konstituzioa (aurrerantzean EK) da asilo eskubidea bermatzen duen legea haren 13.4 artikuluan honakoa ezarriz: *«legeak ezarriko du nola erabil dezaketen Espainian asilo-eskubidea beste herrialdeetako herritarrek eta aberrigabeek».*

EK-k 12/2009 LO-ra igortzen gaitu, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituenak, alegia. Haren 2. artikulua asiloa *«errefuxiatu-izaera aitortutako komunitatez kanpoko nazionaleri edo herrigabekoei ematen zaien babes»* dela adierazten du. Babes hori eskuratzekotan, atzerritarra ez da itzularaziko ezta kanporatuko ere, 1951ko uztailaren 28ko GK-ren 3. artikulua eta 1967ko urtarrilaren 31ean New Yorken sinatutako haren Protokoloari jarraiki.

12/2009 Asilo Legea indarrean sartu aurretik, 3/2007 LO indarrean sartu zen 5/1984 Asilo Legea moldatuz. 5/1984 Asilo Legearen hirugarren xedapen gehigarrian generoa jazarpen arrazoi bezala atxikitu zen, hau da, generoa arrazoi autonomo bezala konfiguratu zen. Egungo Asilo Legeak, ordea, honakoa adierazten du 3. artikuluan: *«errefuxiatu izaera aitortuko zaio; arraza, erlijio, nazionalitate, gizarte-talde, iritzi politiko, genero eta orientazio sexuala dela jazarria izateko arrazoizko beldurra duen pertsona orori [...]».*

Printzipioz, 3. artikulutik ondoriozta genezake generoa arrazoi autonomo bezala alega daitekeela asilo eskaeretan, baina Asilo Legearen 7. artikulura jotzen badugu, soilik arraza, erlijioa, nazionalitatea, gizarte-talde jakin baten parte izatea eta iritzi politikoak edukitzea biltzen ditu jazarpen arrazoi moduan. Beraz, generoa ez da errefuxiatu izaera eskuratzeko jazarpen arrazoi espresoa.

Dakigunez, estatuek dute subiranotasuna asiloa arautzeko. Beraz, hurrengo lerroetan, Espainiar asilo-prozeduran zentratuko gara. Lehenik eta behin jakin behar dugu, Espainian, asilo-eskaera bi bide ezberdinen bidez aurkeztu daitekeela: muga-postuetan edo lurralde nazionalen. Lan hau, lurralde nazionalen aurkeztutako asilo eskaeretan zentratuko da, EMG dela tarteratutako eskaera guztiak bide honetatik aurkeztu baitira (CEAR, 2009: 115-120).

Behin lurralde nazionalean sartuta, hilabete bateko epea dago asilo-eskaerak Asilo eta Babes Bulegoan (aurrerantzean ABB) aurkezteko. Honek, eskaerak, izapidetuko diren edo ez erabakitzen du. Ez onartzekotan, eskatzaileak berraztertzeke administrazio errekurtsua eta/edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake Epaitegi Zentraleko Administrazioarekiko Auzien Salan eta onartzekotan, prozedurari instrukzioaren bidez hasiera emango zaio. Behin instrukzioa amaituta, espedientea eta onartzeko/ukatzeke proposamena, Barne Ministerioari helaraziko zaizkio honek ebatz ditzan. Beraz, asilo eskubidea onartuko edo ukatuko den erabakitzen duena Barne Ministroa da¹⁷, baita babes subsidiarioa emango den erabakitzen duena ere.

Asilo-eskatzaileari errefuxiatu izaera onartzen bazaio, GK-k eta 12/2009 Asilo Legearen 36. artikulua aurreikusitako bermeak aitortuko zaizkio; ordea, asilo eskubidea ukatzen bazaio, kanporatzea exekutatu da, salbu babes subsidiarioa edo egoitzabaimena ematen bazaizkio.

Nazioarteko babesa ukatu zaion pertsonak, apelazio errekurtsua aurkeztu dezake Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salan eta honen erabakiaren aurka, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salan aurkeztu dezake kasazio errekurtsua.

2. Errefuxiatu izaera eskuratzeko elementuak

Aipatu dugun bezala, GK-ren 1A (2). artikulua, pertsona errefuxiatuaren definizioa adierazten du eta definizio horretatik, pertsona errefuxiatua izateko beharrezkoak diren elementuak honakoak direla ondorioztatzen dugu: jazarria izateko beldur sendoa izatea, jazarpen agenteen existentzia frogatzea, jatorrizko-herrialdean babesa lortu ezin izatea, herrialde barruan lekualdatzeko aukera ez edukitzea eta harreman kausala frogatzea.

Hori dela eta garrantzitsua da aipatu dugun ideia: emakumeen jazarpen esperientziak kontuan har daitezen, GK-ren berrinterpretazioa genero perspektibatik egitea beharrezkoa da eta interpretazio hori, pertsona errefuxiatuak barne biltzen dituen elementu guztiekiko gauzatu behar da. Hurrengo lerroetan, elementuak banan-banan aztertuko ditugu genero dimentsioan fokuratuz.

¹⁷ RDL 203/1995 otsailaren 10: 3. eta 27. artikuluen arabera.

2.1. Jazarria izateko arrazoizko beldurra izatea

Errefuxiatu Izaera Zehazteko Prozedura eta Irizpide Manualak «jazarria izateko arrazoizko beldurra»-ren elementua, pertsona errefuxiatuaren izaera onartzeko funtsa dela adierazi du (UNCHR, 2019: 37-50 paragrafoak). Ikusten dugun bezala, «beldur» elementuaz gain, hots, baldintza subjektiboaz gain, «arrazoizkoa» izatea, hots, baldintza objektiboa izatea beharrezkoa da errefuxiatu-izaera eskuratzeko.

Doktrinak adierazi duen bezala, jazarpena bere horretan objektiboa da, baina jazarpena sufritzen duen eskatzailearen sinesgarritasuna subjektiboa. Hala, Estatuaren eskuetan geratzen da jazarpena dagoen zehaztuko dituzten elementu objektiboen exigentzia, horiek izanda apreziazio subjektiboa fundatuko dutenak (Kahale, 2011: 980).

Baina noiz ulertuko da jazarria izateko beldurra egoera objektibo batean justifikatuta dagoela? Eskatzaileak, GK-k jasotako arrazoiengatik jatorrizko herrialdean bizitzea eramangaitz bihurtu bada edo itzultzekotan, arrazoi berberengatik, jasanezina dela frogatzen duenean (UNCHR, 2019: 35-110).

Jazarria izateko beldurra jazarpen kontzeptuari lotu behar zaio (Miguel Juan, 2014: 283), baina ez dugu jazarpen kontzeptuaren definiziorik aurkitzen; ez GK-n ezta UNHCRK-k emandako Ondorioetan ere. Horrek ageria uzten du indarkeria mota guztiak barne hartzen dituen zerrenda bat ezartzea ezinezkoa dela (Miguel Juan, 2014: 285), hori dela eta Hathaway-k (1991: 104), jazarpena, «kalte larria» elementuarekin eta estatuko babes faltarekin lotzen ditu. Gainera, 2011/95 Direktibaren 9.2 artikulua, honakoa adierazten du: «*indarkeria fisikoa edo psikikoa, indarkeria sexuala, diskriminaziozko neurri administratibo, polizial eta judizialak edo sexuagatik zein adin txikikoa izateagatik pertsona bati zuzendutako egintzak, jazarpen bezala ulertuko dira*».

Jakin badakigu emakumeek, emakume izateagatik jasaten dituzten kalteak, eta era berean jasaten dituzten jazarpenak, ezberdinak direla gizonekin konparatuz. Hori dela eta, marko honetan garrantzi nabarmena du generoan oinarritutako jazarpen Gidalerroa (UNCHR HCR/GIP/02/01 Dokumentua, 2002), zeinak GK-aren 1A (2) artikulua testuinguruan generoagatik eman daitezkeen jazarpenak honakoak direla adierazi duen (Kahale, 2011: 981-982):

- a) Legea, bere horretan, jazarpen legea izatea. Praktika tradizionalak jasotzen dituzten legeak daude, nahiz eta hauek giza eskubideen nazioarteko patroien kontrakoak izan, beraz, arauak jazarpena bideratzen du.

- b) Jazarpen praktika bat izatea. Lege batek praktika debekatzek, ez du ziurtatzen praktika gauzatuko ez denik. Honen adibidea, EMG da.
- c) Zigorra edo santzioa izatea. Gerta daiteke arau baten ez-betetzeagatik ezartzen den zigorra orokorregia izateagatik genero dimentsioak berekin izatea eta horrek, jazarpena bultzatzea. Hemen, ezkon-nahasteagatik ezarritako zigorrak ditugu, zeinak gehienetan emakumeei aplikagarri zaizkien.
- d) Diskriminazioa izanda, jazarpenaren baliokidea izatea. Diskriminazioak ez du jazarpena suposatzen, baina diskriminazio patroia bat jazarpen bezala uler daiteke nazioarteko babesaren behar denean. Honen adibidea, sexu-orientazioagatik ematen diren abusuak lirateke.
- e) Orientazio sexualean oinarritutako jazarpena.
- f) Prostituziorako edo esplotazio sexualerako emakumeen salerosketa jazarpen modu bezala ulertzen da.

2.2. Estatuko babes falta eta estatukoak ez diren jazarpen eragileak

Presente eduki behar dugu GK-ren helburua ez dela estatua erantzule deklaratzeko, baizik eta estatuak berak babes emateko gaitasunik / nahirik ez duenean, nazioarteko babes bermatzea. Ideia honek garrantzi handia hartzen du EMG-ren kasuan, izan ere, jazarpena ez du estatuak berak egiten eta hori dela eta, errefuxiatu izatera eskuratu nahi duen emakumeak ez du estatua kalte horren erantzule dela frogatu behar, frogatu behar duena estatuaren babes falta delarik.

Nahiz eta GK-k ez duen ezartzen jazarpen eragilea estatua izan behar duenik (Goodwin-Gill, 1996: 98-99), estatu kide askok horrela interpretatu dute, eta hau argi dago emakumeen kasuetarako kaltegarria izan dela, gehienetan, emakumeen kontrako indarkeria familia eremuan ematen baita eta horren adibide, EMG dugu. Honen aurrean UNHCR-k askotan adierazi du jazarpena existitu daitekeela nahiz eta estatukoak ez diren eragileek aurrera eraman, adibidez familiak edo senarrak (UNCHR HCR/GIP/02/01 Dokumentua, 2002).

Beraz, errefuxiatu bezala onartua izan nahi duen emakumeak alde batetik, jazarria izateko arrazoizko beldurra duela frogatu behar du eta bestetik, estatua kalte horren eragilea dela, edo, estatukoa ez den jazarpen eragilea izanda, estatuko babesik ez duela.

2.3. Herrialde barruan lekualdatzea

Errefuxiatu izaera eskuratzeko, asilo eskatzaileak jatorrizko herrialdean lekualdatzeko zentzuzko aukerarik ez duela frogatu behar du; zentzuzko aukera, «jazarpena izateko arrazoizko beldurra ez dagoen eta bizitza normal bat izateko aukerak ematen dituen herrialdearen eremu espezifikoa» bezala ulertuta (UNCHR HCR/GIP/03/04 Dokumentua, 2003).

Ikusi dugun bezala, genero arrazoiengatik jazarriak diren emakumeak, gehien bat, estatukoak ez diren agenteek jazartzen dituzte. Herrialdea txikia den kasuetan edo EMG-rekin pasatzen den moduan, hura herrialde osoan onartua den kasuetan edota senarra poliziaren laguna den kasuetan (horren adibide Amerikako Estatu Batuen, BIA, 1996ko ekainaren 13ko kasua), herrialde barruan lekualdatzea ezinezkoa egiten da eta askotan, elementu hori ez “agortzeak” nazioarteko babesa eskuratzeko aukera murrizten die emakumei.

Argi dago, elementu honi dagokionez, genero inplikazioa kontuan hartzea behar-beharrezkoa dela eta horregatik UNHCR-k «arrazoizkotasun testaren» erabilera zabaldu du, zeinaren bidez herrialde barruko lekualdatzea posiblea egiten duten bestelako egoerak ponderatzen diren, adibidez: herrialdearen segurtasun egoera, teoriarik den eremu espezifikoa egiten duen giza eskubideen defentsa... (Miguel Juan, 2014: 297).

2.4. Harreman kausala

Orain arte ikusi dugu pertsona bat errefuxiatua izan dadin a) jazarria izateko arrazoizko beldurra, b) estatuko jazarpen eragilea edo estatukoa ez den jazarpen eragilea izanda, estatuak babesa eman nahi ez izatea edo eman ezin izatea, eta d) herrialde barruan lekualdatzeko ezintasuna frogatu behar dituela.

Ikusitako baldintza horiei, azkenekoa gehitu behar diogu: jazarpena, GK-k aurreikusten duen arrazoi batean oinarrituta egon beharra hots; arrazan, erlijioan, nazionalitatean, gizarte-talde jakin baten parte izatean edo iritzi politikoa edukitzean. Eta hemen aurkitzen dugu generoan oinarritutako asilo eskaeren erronka handiena: jazarpena, GK-k aurreikusten duen arrazoi batengatik ematen dela frogatzea.

UNHCR-k honen aurrean genero Gidalerroak (UNCHR HCR/GIP/02/02 Dokumentua, 2002) publikatu zituen eta 22. paragrafoan honakoa ezarri zuen: «asilo-

eskatzaileak errefuxiatu izaera eskuratzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela erabakitzeke, GK-k aurreikusten dituen arrazoiak genero perspektiba batetik interpretatzea beharrezkoa izango da». Gainera, harreman kausalaren betetzea errazteko adarkatutako fokuratzea proposatu zuen eta aurreko lerroetan aipatu dugun Hathaway-k planteatutakoa jarraitzeari ekin da: jazarpena, «kalte larriarekin» eta estatuko babes faltarekin lotu behar da. Hala, honakoa babestu dute jurisprudentziak eta doktrinak (Goñi, 2007: 727-745):

- a) Estatuko agentea ez den eragileak egindako jazarpena GK-k aurreikusten duen arrazoi batekin lotu badaiteke harreman kausala ezar daiteke, estatua asilo eskatzailea babesteko gai ez bada edo babesa ukatzen badion kontuan hartu barik.
- b) Eskatzaileak ezin badu frogatu estatuko agentea ez den eragiletik jasan duen jazarpena GK-aren arrazoi batean oinarritzen dela harreman kausala ezar daiteke, estatuak babesa ez emateko nahia edo gaitasuna GK-aren arrazoietan badago.

Eta nola materializatu dezakegu adarkatutako fokuratzea EMG-ren kasuan?

Bada, dakigunez, emakumeak ezin du beti frogatu senarrak edo familiak (mutilazioa praktikatzeko helburuarekin) GK-k aurreikusten duen arrazoi batengatik jazarri egiten dutela. Ostera, estatuak ez badio emakumeari GK-n aurreikusitako arrazoi batean oinarritutako eskaeraren aurrean babesa ematen, errefuxiatu izaera lortzeko asilo eskaera tartera dezake adieraziz, haren senarrak edo familiak sortutako kalte larriak, estatuak bermatu ez dion babesean fundatzen direla. Hala, argi dago, UNHCR-k adarkatutako fokuratzearen bidez generoan oinarritutako jazarpenen aitortzea erraztu egin duela (Musalo, 2003: 806).

V. Asilo eskubidea eta Emakumeen Mutilazio Genitala

1. Genero arrazoiengatiko jazarpena

Aipatu dugun bezala, pertsona batek errefuxiatu izaera lor dezan ez da nahikoa edozein motako jazarpena sufritzeko arrazoizko beldurra izatea, izan ere, asilo eskaerak soilik onar daitezke sufritutako jazarpena GK-k biltzen dituen kasuetan oinarritzen badira. Landu dugunez, generoan oinarritutako jazarpena ez da espresuki GK-n aipatzen,

baina horrek ez du esan nahi kabidarik ez duenik, horretarako genero perspektiba batetik egindako interpretazioez¹⁸ baliatuko baikara (Miguel Juan, 2014: 301).

Ez dago zalantzarik GK genero perspektiba batetik interpretatzeko beharra UNHCR-k bultzatu duela eta horren isla 1996ko Informearen 6. artikulua da, zeinak honakoa adierazten baitu: «*generoan oinarritutako jazarpen-arrazoia barneratzea ez da beharrezkoa jazarpen-arrazoi guztietan genero dimentsioak eragina izan dezake eta*» (UNCHR, 1996).

Jakin badakigu nazioarteko tratatuak interpretatzeko arauak daudela, beraz, puntu honetara ailegatuta, GK genero perspektiba batetik interpretatzea posiblea den aztertuko dugu, hots, Konbentzioa aldatzeko beharrik gabe, generoan oinarritutako jazarpenak kabidarik duen aztertuko dugu. Horretarako, emakumeen esperientziak analisi kategorial bezala erabiltzearen beharra azpimarratu da, ordea, inplikazio politiko eza eta gerora aztertuko dugun eboluzio jurisprudenzial motel eta heterogeneoa ikusirik, argi dago emakumeen eskubideak egungo legezko kulturaren sartzeko, eskuragarri ditugun tresnen erabileran fokuratu behar garela, tresna horietako bat, Tratatuaren zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioa delarik (1969ko maiatzaren 23).

Vienako Konbentzioaren 31-33. artikuluetara jo behar dugu tratatuaren interpretazio arauak aztertze aldera. 31. artikulua, interpretazio arau orokorra biltzen du honakoa adieraziz: «*tratatu bat fede onez interpretatu beharko da, tratatuaren terminoak beren testuinguruan eman behar zaien zentzu arrunta eman eta haren xedea eta helburua kontuan hartuz*». Arau orokorrak dioena aintzat hartuta, bi zehaztasun adieraziko ditugu GK-n generoan oinarritutako interpretazioa egitea posiblea dela eta beraz, generoagatik jazarpena barne har daitekeela justifikatzeko.

Lehenik, GK-ren helburuak zehaztuko ditugu generoan oinarritutako interpretazioa gauzatzeak Konbentzioaren espiritua aldatuko ez duela ziurtatzeko. GK-ren helburuak, alde batetik, jatorrizko herrialdean babestua izan ezin daitekeen norbanakoa babestea eta, bestetik, arazo horrek suposatzen dituenak nazioarteko lankidetzaren bidez konpontzea

¹⁸ Testuinguru honetan egokia litzateke doktrinaren eman den «zabaltze versus existitzen diren kategorien interpretatze» dilema aipatzea (Randall, 2002:283). Ezin daiteke esan dilema honek erantzun bateratua duenik, askok, GK-ra seigarren arrazoia barneratzearen aldekoak baitira, hots, generoa barneratzearen aldekoak; eta beste askok, interpretazio-bidetik GK-k planteatutako arrazoipean, generoa kabitzen dela defendatzen dute. Egun, azkeneko planteamendu honek indar handiagoa duela esan genezake.

dira (UNCHR, s.f.). Hartaz, ez al dago babes gabe EMG praktikatu nahi dioten emakumea hark babeska eskatuta estatuak ez badio babesik ematen -bai praktika debekatu ez duen estatua izateagatik, bai nahiz eta praktika debekatu, orokortua izateagatik-? Honenbestez, GK-ren helburuetariko bat babeska ematea bada, helburu horri jarraiki planteatutako interpretazioa baliozkoa izango da eta argi dago EMG praktikatzera behartuta dagoen emakumea babesgabekoa dela.

Bigarrenik, zalantzarik ez dago tratatu batean jasotako xedapenen interpretazioaren abiapuntua testua (terminoen zentzu arrunta) dela. Kasu honetan, genero arrazoiengatik jazarpenera gizarte-talde jakin bateko kide izateagatik jasaten den jazarpen gisa kalifikatzea hitzen zentzu arruntarekin bat datorren interpretazioa litzateke. Izan ere, gizarte-talde jakin bat «ezaugarri komun bat partekatzen duten pertsonen multzoa da. Ezaugarria berezkoa eta aldaezina da, identitatea eta kontzientzia osatzeko eta giza eskubideen egikaritzarako beharrezkoa dena» (UNCHR HCR/GIP/02/02 Dokumentua, 2002). Definizio hau eta emakumea berezko ezaugarriak dituen taldea dela kontuan hartuta (UNCHR XXXVI Gomendioa, 1985: k paragrafoa), emakumeek gizarte-talde jakina osatzen dutela ondoriozta dezakegu¹⁹. Gainera, gizarte-talde jakin baten parte izateagatik jazarpenera, hondar-kategoria dela adierazi du doktrinak, hau da, beste kategorien barnean sartu ezin daitezkeen jazarpen-arrazoiak han sailka daitezke. Hala, azken urteotan, generoagatik asilo eskaerak kategoria horretan subsumitu dira (Santolaya, 2000: 588) eta neurri txikiago batean, iritzi politikoak izateagatik arrazoipean (Crawley, 2001).

Argi dago, beraz, nazioarteko arauak generoan oinarritutako interpretaziorako aukera ematen dutela, ordea, ez dago aho batasunik aipatu dugun azken ideiarekiko, izan ere, generoan oinarritutako asilo eskaera, GK-k biltzen dituen arrazoi anitzetan subsumitua izan da (Kahale, 2011: 983). Egia da, gizarte-talde jakin baten parte izateagatik jazarpenera kategoria emakumeei babeska emateko kategoria bezala erabiltzearen jarrera UNHCR-k

¹⁹ Horrela jaso da honako kasuetan: Lorden Ganberaren *Islam* kasuan; 1999ko *Ex Parte Shah* (Erresuma Batua), Zelanda Berriko Auzitegien *Refugee Appeal 71427/99* epaian, GEEA-ren *Jabari c. Turkia* (2000) kasuan, Australiako Auzitegi Gorenaren *Minister for Immigration and Multicultural Affairs v. Khawar* kasuan, edota GEEA-ren *Bevacqua y S. c. Bulgaria* (2008), *Opuz c. Turquía* (2009) epaietan (Carrillo, Tony, 2011: 984).

hartu duela (UNCHR HCR/GIP/02/02 Dokumentua, 2002) eta estatu gehienek jurisprudentziak hura babestu dutela ere, horren adibide, Espainiar Estatua dugu.

Hurrengo lerroetan, espainiar jurisprudentziak «gizarte-talde jakin» kontzeptuari eman dion trataeran oinarrituta, Espainiar Asilo Legeak aurreikusten dituen eta EMG-ren kasuari aplikagarri zaizkion supostuak aipatuko ditugu (12/2009 LO, urriaren 30: 7.1 e) artikulua):

1. Taldea, berezko ezaugarri edo aldatu ezin daitezkeen aurrekari komunak partekatzen dituen pertsonen multzoa da, ezaugarri eta aurrekari horiek taldearen identitatea osatzeko oinarritzkoak direlarik.
2. Taldea, bizi den gizartearekiko edo jazarpen eragileekiko identitate ezberdina duen pertsonen multzoa da.
3. Jatorrizko herrialdearen egoera kontuan hartuta, genero arrazoiengatik jazarriak izateko arriskua pairatzetik ihes egiten duten pertsonen talde bat osatzen dute.

Ildo beretik, gizarte-talde jakin baten parte izatea suposatzen duenaz hitz egingo dugu UNHCR-rek egindako interpretazio instituzionalari jarraiki. 2002. urtean garrantzitsuak diren eta jadanik aipatu ditugun bi interpretazio Gidalerro argitaratzen dira; alde batetik, generoan oinarritutako jazarpen Gidalerroa (UNCHR HCR/GIP/02/01 Dokumentua, 2002) eta bestetik, genero Gidalerroa (UNCHR HCR/GIP/02/02 Dokumentua, 2002). Biek bat egiten dute ideia honetan: GK-k generoan oinarritutako jazarpenari erreferentzia espresoa ez egiteak ez du esan nahi genero arrazoiak direla eta aurkezten diren asilo eskaerak ez dituela barne hartzen. Eta biek plazaratzen dute generoan oinarritutako jazarpenak gizarte-talde jakin baten parte izateagatik jazarpenaren markoan subsumitu behar direla.

Azkenik eta hurrengo puntuari hasiera emateko helburuz, aipatu behar dugu UHNCR bezalako nazioarteko erakundeak EMG genero Gidalerroetan GK-k aurreikusten duen jazarpen mota bezala aitortzeak, argi uzten digula asilo eskaerak genero arrazoiengan oinarritu daitezkeela. Egia da, puntu honetan landu bezala, ez dagoela ahobatasunik eta aintzatespen unibertsalik GK-k aurreikusten dituen jazarpenetatik zeinetan subsumitu daitezkeen, beraz, auzitegietan interpretazio jurisprudentzial ezberdinak eman dira EMG-n oinarritutako asilo eskaerei dagokionez. Hurrengo lerroetan, ebazpen nabarmenenak aztertuko ditugu.

2. Zuzenbideak EMG-ri emandako erantzunak

2.1. Testuingurua: *Kasinga kasua*

Aipatu bezala, generoan oinarritutako jazarpena, gizarte-talde jakin baten parte izateagatiko jazarpenaren markoan uler daiteke harreman kausala ezartzeko helburuz, hots, emakumeak, gizarte-talde jakin baten parte izateagatik jazarpena pairatzen duela ezartzeko.

Barne auzitegiak izan dira, gehien bat, lerro jurisprudenzialak ezarri dituztenak EMG eta asilo eskaerei dagokionez (Jimenez Sánchez, 2017: 20), hori dela eta, nazioarteko eremuan nabarmenak diren ebazpenei erreferentzia egiteko beharra alde batera utzi gabe, barne ebazpenetan fokuratuko gara.

Nazioarte mailan EMG jazarpen arrazoia zela ebatzi zuen lehenengo kasua *Kasinga* izan zen (Amerikako Estatu Batuak, BIA, 1996ko ekainaren 13). Fauziya Kasingak, Togoko adin txikiko neska, asilo eskaera tarteratu zuen Amerikako Estatu Batuetara ailegatzean; bai gizon batekin ezkontzera behartu zutelako baita EMG sufritzeko arriskua zuelako ere. Board of Immigration Appeals-ek (BIA) eskaera ukatu zion harreman kausala ezartzeko ezintasuna adieraziz (Musalo, 2003: 799). Kasua, auzitegiara ailegatu zen eta ebazpenean, asilo eskubidea onartu zitzaion. Erabaki horrek, lehen aldiz, EMG praktikatu nahi izateak suposatzen duen jazarpenaren eta GK-k aurreikusten dituen jazarpen arrazoien arteko harreman kausala ezarri zuen.

Kasinga kasua, erreferente jurisprudenzialtzat hartu da genero arrazoietan oinarritutako asilo eskaerei dagokionez: jazarpen terminoa definitzen lagundu zuelako, gizarte-talde jakin baten parte izateagatik sufritutako jazarpen kategorian generoagatiko jazarpenak subsumitu zitezkeela adierazi zuelako eta EMG jazarpen bezala aitortu zuelako. Ebazpen honek, gainera, kanporatzeen inguruko eztabaidak ireki zituen Amerikako Estatu Batuetako Kongresuan.

Geroztik, EMG-ren testuinguruan honako galdera planteatu da: posiblea al da asilo-eskaera tarteratzea behin EMG sufrituta? 2.2.1 puntuan landu bezala, praktikak sortzen dituen osasun ondorioen izaera konponezinak, askotan, emakumea jazarria izateko arrazoizko beldurra mantentzea bermatzen dute eta hori izan zen Abay kasuan arrazoitu zena (Amerikako Estatu Batuen Apelazio Auzitegia 2004ko maiatzaren 19). Auzitegiak, asiloa onartu zion jadanik mutilatua izan zen emakumeari, haren alaba Etiopiarra itzularazteko eta han mutilatua izateko beldurra arrazoizkoa zela adieraziz.

2.2.EMG Giza Eskubideen Europako Auzitegian: GEEH-ren 3. artikulua

Marko honetan, Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmenaren (aurrerantzean GEEH) 3. artikuluari buruz arituko gara. Hala ere, lehenik eta behin, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (aurrerantzean GEEA), GEEH, asilo eskubidean oinarritzen ez dela adierazi duela argi utzi behar dugu -estatuek baitute subiranotasuna hori arautzeko-. Goaz, GEEH-ren 3. artikulua dioena ikustera: «*inori ere ezin zaio torturarik eta zigorrik edo tratu anker edo iraingarririk ezarri*».

Baina zer garrantzi du artikulua honek gure testuinguruan? Bada, EMG dela tarteratzen diren asilo eskaera gehienetan, errefuxiatu izaera ukatzen da (Miguel Juan, 2008) eta horren ondorio zuzenetako bat, emakumeak, jatorrizko herrialdera itzularaztea da. Hala, emakumeek erabakiak errekurriz GEEA-ra ailegatzen dira GEEH-ren 3. artikulua urraketa ematen dela alegatuz, hots, errefuxiatu izaera ukatzeak eta euren herrialdeetara itzularazteak GEEH-ren 3. artikulua kontrako tratua dela adierazten dute. Hobeto ulertzeko, hurrengo lerroetan, GEEA-k emandako hiru ebazpen aipatuko ditugu aurretik azaldutakoaren isla ikus dadin.

Hiru ebazpenetan emakumeek Suedian tarteratu zuten asilo-eskaera, EMG sufritzeko edo haien alabak sufritzeko jazarpenean oinarrituta. Hirurak ukatu ziren eta behin barne instantzia guztiak agortuta GEEA-ren aurrean demanda aurkeztu zuten GEEH-ren 3. artikulua urraketa alegatuz. Hiru kasuetan GEEA-k ez zituen demandak onartu, baina estatu kideari itzultzea etenarazteko agindua luzatu zion²⁰.

Hurrengo lerroetan kasuei erreferentzia egingo diegu (Miguel Juan, 2014: 174 eta Kosinska, 2020: 111-112)²¹:

Lunguli v. Suedia kasuan (STEDH 2003ko uztailaren 7), asilo eskatzailea EMG praktikatu ziezaioten ekiditeko Tanzaniatik ihes egin zuen emakumea zen. Suedian asilo eskaera tarteratu eta 17 urteko neska bati mutilazioa praktikatzea ezinezkoa zela

²⁰ Itzultzea etenarazteko agindua kautela neurri bezala ezarri zen, zeina GEEA-ren prozedura arauen 39.1 artikulua aurreikusten duen; eskuragarri: https://www.echr.coe.int/Documents/Rules_Court_SPA.pdf. GEEA-k kautela neurriak ezar ditzan beharrezkoa da: salbuespeneko eta urgentziazko kasua izatea, konponezina den mina sortzeko egoera izatea eta kaltea gertatzeko aukera handia egotea (Mole, 2007).

²¹ Aurreratzen dugu ez dela inoiz kasurik eman non GEEA-k adierazten duen emakume bat haren jatorrizko-herrialdera itzularazteak GEEH-ren 3. artikulua urraketa suposatzen duenik.

arrazoipean ez zioten errefuxiatu izaera onartu. GEEA-k, ordea, itzultzea etenarazi zuen eta Suediak egoitza-baimena luzatu zion.

Agbotain v. Suedia kasuan (STEDH 2007ko otsailaren 1), asilo eskatzailea Nigeriako emakumea zen, zeinak Suedian jaiotako alaba eta bera jatorrizko herrialdera itzularazi egiten bazuten EMG praktikatuko ziotela alegatu zuen. Suediako auzitegiek ez zioten errefuxiatu izaera onartu izaera pribatuko zioa zela eta Nigeriak praktika debekatuta zuela adieraziz. GEEA-k, bere aldetik, itzultzea etenarazi zuen. Honen aurrean, Suediak egoitza-baimen bat luzatu zion emakumeari.

Collins v. Suedia kasuan (STEDH 2007ko martxoaren 8), asilo eskatzailea haurdun zegoen Nigeriako emakumea zen. Nigeriara itzuliz gero, hari eta haren alabeei EMG praktikatuko ziotela alegatu zuen eta arrazoizko beldurra, haren arreba mutilazioagatik hil zelaren bizipenean funtsatu zuen. Suediako auzitegiek ez zioten asilo eskubidea onartu sinesgarritasun faltan oinarrituta eta GEEA-ra ailegatu zen. GEEAK-k argi adierazi zuen asilo-eskaera ez onartzearen zergatia emandako bertsio ezberdinetan zegoela, hots, sinesgarritasun faltan eta horrek ez zuela suposatzen 3. artikularen urraketa. Hala ere, EMG GEEH-ren 3. artikularen kontrako tratua zela adierazi zuen -zeinak aurrerapauso handia suposatu zuen- itzularaztea etenduz.

Azkeneko urteetan GEEA-ra ailegatu diren EMG dela oinarritutako asilo eskaeren inguruko demandek, lerro jurisprudenzial bera jarraitu dute eta horien adibide, *Izebekhai c. Irlanda* (2011), *Omeredo c. Austria* (2011) eta *Sow c. Belgika* (2016) kasuak dira, non asilo eskaerak ez diren onartu sinesgarritasun falta dela eta. Ordea, itzultzeak etenarazteko kautela neurriak ezarri dira kasu gehienetan EMG GEEH-ren 3. artikularen kontrako tratua dela adieraziz (Kosinska, 2020: 111-112).

Beraz, aipatutako kasuak oinarri hartuta, honakoa ondoriozta genezake: ez dago GEEH-ren 3. artikularen urraketa aitortzen duen GEEA-ren sententziarik (EMG-ari dagokionez), baina horrek ez du esan nahi EMG 3. artikularen kontrako praktika ez denik (*Collins v. Suedia* kasuan, argi adierazi zen EMG 3. artikularen kontrako praktika zela). Azken finean, GEEA-k itzulketak etenarazteko kautela neurria ezartzeko arrazoi bat «konponezina den mina sortzeko egoera» baten aurrean egotea da, beraz, modu batean edo bestean EMG horren isla dela aditzera ematen du. Gainera, GEEA-ren aurrean demanda tarteratzeak, nolabaiteko presioa egiten duela ikus daiteke; hiru kasuetan, estatu kideek itzulketak eten baitzituzten eta egoitza-baimenak eman baitzizkieten emakumeei.

Azkenik, interesgarria litzateke Europako Kontseiluaren Asanblea Parlamentarioak 2001eko maiatzaren 3an argitaratutako Informea aipatzea, zeinaren bidez EMG-ren debekua luzatu zen GEEH-ren 3. artikulua kontrako tratu anker edo iraingarria zela adieraziz (Pérez Vaquero, 2011:10).

2.3.EMG-ren trataera administratiboa eta jurisprudenziala Espainian

Espainiar jurisprudentziak ere GEEA-ren erroak jarraitu ditu EMG-aren inguruko kasuak tramitera ez onartuz edo nazioarteko babesa ukatuz errefuxiatu izaera ez onartzeagatik (Miguel Juan, 2008:4). Gainera, gehienetan, praktika hau ez da asiloa aitortzeko arrazoi nahikotzat hartu (Santolaya, 2000: 588), ezin dugu ahaztu EMG ez dela beti jazarpenzat onartu. Espainiar Estatuan EMG-ari eta asilo eskubideari emandako trataera aztertze aldera, hurrengo erroetan kasu nabarmenenak aipatuko ditugu.

A. Asilo eskaeraren izapidetza ez onartze kasuak

Dakigunez, behin lurralde nazionalean sartuta, hilabete bateko epea dago asilo-eskaerak ABB-n aurkezteko eta azkeneko honek, eskaera izapidetuko den edo ez erabakiko du. Honen erabakiaren aurrean, Epaitegi Zentraleko Administrazioarekiko Auzien Salan aurkez daiteke errekurtsioa (2003/19 Lege Organikoa sartu aurretik Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salan aurkezten ziren) eta egoera hau eman den bi kasu aipatuko ditugu: SAN 1898/2004, martxoaren 17ko eta ATS 7117/2014, uztailaren 17ko kasuak.

Bi kasuetan, ABB-k asilo-eskaeraren izapidetza ez onartzeko zioa alegatutako arrazoian zegoela adierazi zuen, hau da, EMG GK-k aurreikusten zituen arrazoiaren artean ez zegoela ebatzi zuen. Ordea, bai Auzitegi Nazionaleko bai Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak honakoa adierazi zuten EMG-ari zegoekionez a) emakumeen osotasunaren kontrako jazarpen pertsonala zela, b) emakumeen kontrako indarkeria mota espezifiko zela, d) nahiz eta generoan oinarritutako jazarpena GK-ak ez aipatu, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik markoan sar zitekeela, e) jazarpen agentea estatukoa izan edo ez EMG jazarpen mota bat zela eta f) estatuak babesa eskualdatu behar zela emakumeei egoera honen aurrean. Hori dela eta, asilo-eskaeraren izapidetza ez onartzeagatik jarritako errekurtsioak baietsi ziren.

Ikus dezakegunez, Auzitegiek EMG GK-k aurreikusten dituen arrazoen artean subsumitu daitekela ezarri dute eta, beraz, ezin daitekela EMG-ean oinarritutako asilo-eskaeraren izapidetza ez onartu arrazoi hutsean justifikatuz.

B. Asilo eskubide onartze kasuak

EMG dela aurkeztutako asilo eskaerak SAN 4675/2014 azaroaren 24ko, SAN 2734/2006 ekainaren 21eko, STS 2781/2009 maiatzaren 11ko kasuetan onartuak izan dira. Aipatu dugun azkeneko ebazpenak (STS 2781/2009, maiatzaren 11) EMG dela tarteratutako asilo eskaeren nondik norakoak ezartzeko izan duen garrantziagatik, horren aurrekariak eta zantzu interesgarrienak aipatuko ditugu.

Auzitegi Gorenak, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren ebazpenaren kontrako errekurtsoa aztertu zuen. Asilo eskatzailea, Nigeriatik eta behartutako ezkontza saihestetik baita EMG praktikatu ez ziezaioten helburuarekin ere ihes egin zuen emakumea zen. Auzitegi Nazionalak ez zion errefuxiatu izaera onartu, baina Espainian geratzeko eskaera onartu zion²². Ordea, Auzitegi Gorenak 2003ko martxoaren 24an Auzitegi Nazionalak emandako sententzia indargabetu eta asiloa onartu zion emakumeari.

Sententzia horrek argi utzi zuen Nigerian, EMG praktika orokortua zela eta beraz, ez zegoela EMG-ari aurre egiteko sistema juridiko eraginkorrik nahiz eta praktika bere horretan debekatuta egon.

Lehen aldiz Auzitegi Gorenak, EMG eta behartutako ezkontza sufritu izanagatik errefuxiatu izaera onartu zion emakume bati. Sententzia honek, jurisprudenzia garatzeaz gain, generoagatik jazarpenagatik asilo eskubidea eskatzen duten emakumeei bidea zabaldu zien.

²² Errealitate honek babes subsidiarioari egiten dio erreferentzia, hots, 12/2009 Legearen 17.2 artikulua ezartzen duenari «arrazoi humanitarioengatik edo interes publikoarengatik baimendu ahal izango da interesduna Espainian gelditzea nahiz eta horren eskabidearen izapidetza onartu ez edo eskabidea ukatu (...)».

C. Asilo eskubide ez onartze kasuak

Generoan oinarritutako jazarpenagatik tarteratzen diren asilo eskaeren inguruan egin den azken ikerketak, honakoa adierazi zuen: emakumeek, eskaeren %49,51a generoan oinarritutako jazarpenak alegatuz tarteratzen dituzte eta horietatik, %14,29a EMG oinarritutakoak dira (CEAR, 2009: 131-155). Aipatu bezala, Espainiar trataera administratibo eta juridikoaren joera kasuak tramitera ez onartzea edo asiloa ez onartzea dira (Silva Cuesta, 2017: 358).

Hurrengo lerroetan eta ukatze-arrazoiak aztertze aldera, Barne Ministroak eta Auzitegi Nazionalak hartutako erabakien kontra tarteratu diren lau sententzia oinarri hartuko ditugu: STS 3673/2008 uztailearen 4ko, SAN 846/2001 otsailaren 9ko, SAN 811/2004 otsailaren 10eko eta SAN 1159/2006 martxoaren 24ko sententziak, alegia. Lehenik eta behin, ordea, interesgarria litzateke aipatzea lau sententzia horietatik, hirutan onartu zela EMG GK-k aurreikusten dituen arrazoiaren markoan sar zitekeela, salbu SAN 811/2004 otsailaren 10eko sententzian, nahiz eta UNHCR-k haren Gidalerroetan ezarritakoaren aurka joan.

Kasu guztietan asiloa «alegazioen egiantzekotasun faltan» oinarrituta ukatu da, hots, a) pasaporte bezalako dokumentuen falta dela nortasuna frogatu ez izanagatik, b) sinesgarritasun faltagatik, d) jazarpena estatuko agenteak ez diren elementu sozialek egin izanagatik eta ulertzeagatik estatuari laguntza eskatzeko aukera zegoela, e) legez EMG debekatuta egoteagatik edo f) barne ihesaldirako aukera dagoela ulertzeagatik izan dira erabilitako arrazoiak asilo eskubidea ukatzeko, gehien bat.

SAN 1159/2006, martxoaren 24ko sententzia nabarmena da. Auzitegi Nazionalak errefuxiatu izaera ukatu zion emakumeari, baina babes subsidiarioa onartu zion Espainiar Asilo Legearen 4. artikuluan oinarrituta. Izan ere, auzitegiak ulertu zuen, emakumea herrialdera itzuliz gero, seguraski, arbuio egoera batekin aurkituko zela EMG-agatik asiloa eskatu izanagatik eta horrek Espainian geratzeko eskubidea onartzen ziola, errekurtsua partzialki baietsiz.

Sententzia honetan, Isabel Perelló Domenech magistratuak bozka partikular bidez, emakumeari errefuxiatu izaera onartzea legezkoa zela adierazi zuen; EMG generoan oinarritutako jazarpena zelako eta hura, GK-ren testuinguruan uler zitekeelako gizarte-talde jakin baten markoan subsumituz. Sententzia Auzitegi Gorenaren aurrean errekurritu

zen auzi-jartzaileari babes subsidiarioak, errefuxiatuen estatutuak baino babes gutxiago esleitzen ziola alegatuz²³, baina ez zitzaion izaera onartu.

VI. Ondorioak

Mendebaldeko gizartearen idiosinkrasia kulturala eta erlijiosoa kolokan jarri da migrazio fluxuak direla medio. Hala, XXI. mendeko errealitate berriei erantzuten dieten erronka juridiko, ekonomiko eta sozial berriak planteatu behar izan dira, azken finean, jatorrizko herrialdetik ihes egiten duena ez da herrialdea bere horretan, baizik herrialdearen kultura. Horrek, talka kulturalak sorrarazten dituelarik.

Talka kultural horietan du sorburu, alde batetik, emakumeen mutilazio genitalari zuzenbideak emandako erantzun anitzak eta bestetik, talka horiek dira, Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidearen irakurketa berriztua bultzatu dutenak. Hurrengo lerroetan, EMG sufritzeko edo sufritutako arrazoipean asilo eskaera tarteratzen duen emakumeari errefuxiatu izaera aitortzeko oztopo nagusiei buruzko azterketatik ondorioztatutakoak islatuko ditugu.

Nazio Batuen Erakundeak babestutako adierazpenak -hots, EMG emakumeekiko indarkeria eta emakumeen giza eskubideen kontrako urraketa direlaren adierazpenak- hartuko ditugu oinarri lehenengo galdera planteatzeko: ematen al dio giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak erantzun egokia emakumeen giza eskubideen urraketari?

Egia da zuzenbideak garapen bat izan duela, baina ukaezina litzateke adieraztea garapena androzentrikoa izan dela. Hori dela eta, EMG emakumeen giza eskubideen urraketa dela aitortzeko oztopoak, giza eskubideen babeserako nazioarteko tresna eta prozeduren eraginkortasun ezan dagoela sostengatzen dut. Lanean zehar landutako hitzarmenen eta tresnen bidez emakumeek modu sistematikoan pairatzen dituzten diskriminazioen izaera partikularra aitortzeak, zuzenbidearen garapena bideratu dute; baina garapen horren funtzionaltasuna kaltetuta suertatu da emakumei babesa bermatzeko tresna espezifikoaren sorrerarekin. Beste hitz batzuetan esanda, nahiz eta

²³ Egun, 12/2009 espainiar Asilo Legeak errefuxiatu estatutuaren eta babes subsidiarioa eskuratzen duenaren arteko ezberdintasunak ezabatu zituen, antzeko eskubideak bi estatutuei onartuz. Ostera, EB-ko estatu kide askotan ez da parekotasun bera aitortu eta ezberdintasun horiek diskriminazioa sor dezaketela alegatu da Auzitegietan.

emakumeari babes espezifikoa esleitzen dioten nazioarteko organismoak eraginkorrak izan giza eskubideei, bere osotasunean, babesa esleitu behar dieten «nazioarteko organismo orokorrek» ez diote babes eraginkorrik esleitzen emakumeen giza eskubideei, horien artean, EMG praktikatzearen ondorioz urratutako giza eskubideei. Horrela, giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak, emakumeen giza eskubideen urraketari babes partziala ematen diola deritzot eta babes partzial horretan datza emakumeen giza eskubideen urraketak aitortzeko itzulinguruak ematearen zergatia. Hortaz, ukaezina da adieraztea giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak bermatzen duen babes partzial hori, Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidera ere luzatzen dela.

Dakigunez, emakume errefuxiatuak Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbidean babestuak izan daitezke, baina horretarako GK-ren arrazoietan oinarritu behar dute asilo eskaera. Beraz, bigarren galdera bat planteatu genezake: EMG sufritu edo sufritzeko arriskua duen emakumeari errefuxiatu izatera maiztasunez ez aitortzearen zergatia GK-n generoagatiko jazarpena espresuki ez biltzean datza? Alegia, beharrezkoa al da generoa GK-n jazarpen-arrazoi autonomo bezala atxikitzea? Nire aburuz, EMG dela tarteratzen diren asilo eskaerei erantzun egokia emateko ezintasuna ez datza genero arrazoiengatiko jazarpena atxikitu ez izanean, baizik eta GK-ren interpretazioa, perspektiba maskulino batetik egin izanean. Beraz, ez litzateke beharrezkoa izango GK aldatzea, hura genero perspektiba batetik interpretatuko balitz eta horretarako, emakumeen esperientziak analisi kategoriala bezala erabiliko balira.

Beraz, nahiz Konbentzioari arrazoi berri bat ez atxikitu, behar-beharrezkoa da hura berrinterpretatzea (Randall, 2002) eta hori egin daitekelaren oinarri Tratatuaren zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren (1969ko maiatzaren 23) arauak ditugu. Tratatuak euren helburuen arabera interpretatu behar diren heinean eta jakinda GK-ren xedea jatorrizko herrialdean babestua izan ezin daitekeen norbanakoa babestea dela, guztiz zilegia litzateke metodo feministez baliatuta, GK-ari genero perspektiba atxikitzea EMG-n oinarritutako jazarpenak kontuan har daitezten.

Are gehiago, generoa analisi kategoriala bezala erabiliko balitz, errefuxiatu izatera onartua izan dadin bildu beharreko elementu guztiekiko²⁴ berrinterpretazioa gauzatuko

²⁴Pertsona bat, errefuxiatua izateko beharrezkoak diren elementuak honakoak dira: jazarria izateko beldur sendoa, jazarpen agenteak, jatorrizko-herrialdearen babesa lortu ezin izatea, herrialde barruan lekualdatzeko aukera eta harreman kausala

litzateke, halako moldez non EMG dela asilo eskaera tarteratzen duen emakumea kontuan hartu ahal izango baiten. Haatik, elementuen interpretazioaren harira zenbait arazorekin egiten dugu topo.

Lehenengo arazoa jazarpen kontzeptuarekin lotzen dugu, izan ere, askotan, EMG-ren praktika ez da jazarpen bezala ulertzen praktika kulturala dela defenditzeagatik, eremu pribatua gauzatzeagatik eta estatuko agenteak ez direnek eragiteagatik. Hots, zuzenbideak, jazarpen eredu maskulinoa paradigma moduan erabiltzen du eta horrek, emakumeek sufritzen dituzten kalteen izaera bazterrarazten du. Azken finean, gizonak sufritzen dituzten kalteak, gehienetan, eremu publikoan eta estatuko agenteen bidez egikaritzen dira; ordea, emakumeek sufritutakoak izaera pribatua dute. Beraz, garrantzitsua da interpretazioaren bidez berdintasunaren konfigurazio juridikoa lortzea; alde batetik, emakumeen asimilazio juridikoa saihesteko eta bestetik, gizonaren esperientzia objektiboki inpartziala den parametro bezala erabiltzeari uzteko. Era berean, interpretazioaz baliatuz, EMG entitate nahikoa duen kalte larri, eta beraz, jazarpen bezala konfiguratzea posiblea izango litzateke. Baina EMG jazarpenentzat konfiguratzeak ez du saihesten interpretazioak sorrarazten digun bigarren arazoa, izan ere, jakin badakigu asilo eskaera GK-k barne hartzen duen jazarpen-arrazoi batean oinarritu behar dela, eta GK-k ez du EMG-ri egotz dakiokeen jazarpen-arrazoi zehatzik aurreikusten. Beraz, nola frogatu dezakegu sufritutako jazarpenaren (EMG-ren) eta GK-k aurreikusten dituen jazarpen-arrazoiaren (arrazan, erlijioan, nazionalitatean, gizarte-talde jakin baten parte izatean edo iritzi politikoa edukitzean) artean harreman kausala ematen dela? UNCHR-k proposatutako adarkatutako fokuratzearen bidez, alegia. Hots, jatorrizko estatuak EMG sufritu duen emakumeari ez badio babesik bermatzen (i) nahi ez duelako edo (ii) ezinezkoa zaiolako eta babesaren eskaera GK-k biltzen duen arrazoi batengatik bada, harreman kausala frogatutzat emango da.

Argi izan behar dugu genero-interpretazioaren aplikagarritasuna, Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbideak barne biltzen dituen elementu orotan aplikatzeaz gain prozedurari aplikatzea ere beharrezkoa dela (elkarrizketa inklusiboak, emakumezko interpretatzaileak izateko aukera, epemugen malgutasuna, jatorrizko herrialdeen ikerketa sakonagoak...). Prozeduran zehar emakumeen interesak eta beharrak kontuan hartuko

direla bermatzea garrantzitsua da (Connors, 1997: 114-128) eta ideia honen isla, UNHCR-ren 73. ondorioa da²⁵.

Eboluzio jurisprudenzialari dagokionez eta aztertu ditugun ebazpenak kontuan hartuta, praktikan, asilo eta genero binomiotik planteatzen diren zioak anitzak izan daitezkeela ikusi dugu eta horien guztien sostengua ere legearen interpretazioan dago. Genero perspektibak sortzen dituen mugak herrialde bakoitzak egindako interpretazio propioetan aurkitzen ditugu, azken finean, EMG-n oinarritutako jazarpena, arrazoi ezberdinetan subsumitu da (nahiz eta gehienetan gizarte-talde jakin baten parte izateagatik pairatzen den jazarpen-arrazoiak subsumitu den). Horrela, nahiz eta egun, orokorrean, ez den zalantzan jartzen EMG GK-ren babespean dagoen jazarpen mota bat denik (emakumea, emakume izateagatik pairatzen baitu EMG eta emakumea, praktika hori pairatzetik ihes egiteagatik delako jazarria), egia da, modu murriztaile batean interpretatzen dela legea emakumeei errefuxiatu izaera onartzerako orduan. Hala, jurisprudenziaren anibalentziak, segurtasun juridikoa kolokan jartzen du (García Ruiz, 2007: 40).

Orokorrean, espainiar eta nazioarteko ordenamendu juridikoek eboluzionatu dute EMG dela tarteratzen diren asilo eskaerei dagokionez. Egia da eskualdeak izan direla errefuxiatu kontzeptua dinamizatu dutenak irakurketa berriztuen bidez eta nazioarteko auzitegien jurisprudentzia osagarria izan dela, baina horrek ez du esan nahi EMG-ren aurkako eremuan konpromezu handirik hartu dutenik. Azken finean, auzitegiek eman dituzten erantzunak / trataerak ez dira homogeenak izan, askotan; eskaerak onartzeko, ukatzeko erabili diren arrazoiketa berdinak argudiatu baitira²⁶ (Miguel Juan, 2014: 277).

Beharrezkoa da garbi uztea UNHCR-ren Gidalerro eta ondorioek EMG jazarpen bezala aitortzeak, haren izaera pribatua eta gobernu kanpoko kontuan hartuta, aurrerapauso handia izan dela generoan oinarritutako asilo eskaerei dagokionez. Azken finean, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiaren erabilerak, emakumeen kontrako

²⁵ UNCHR XLIV Ondorioa, 1993: Errefuxiatuen babesa eta indarkeria sexuala. Eskuragarri: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2002/0584.pdf?file=fileadmin/Documentos/BDL/2002/0584>

²⁶ Adibidez: SAN811/2004 otsailaren 10eko sententzian, Nigeriako emakume bati asiloa ukatu zitzaion pasaporte ez edukitzeagatik, ordea, STS 2781/2009 maiatzaren 11ko sententziak, pasaportea eramatea garrantzi handiko zioa ez zela argudiatu zuen.

indarkeria motak gutxiatea suposatu du, horien artean EMG. Nolanahi ere, gakoa, Errefuxiatuen Nazioarteko Zuzenbideak esperientzia maskulinoen jomugak paradigma bezala erabiltzeari uztean eta emakumeen kontrako indarkeriaren elementu komunak bilatzean datza -lanean ikusi bezala, bistan baita EMG ez dela isolatutako praktika, behartutako ezkontzarekin lotura estua baitu.

Amai dezagun esanez, azkeneko urteotan emakumeek generoan oinarrituta tarteratutako asilo eskaerek -horien artean EMG dela eta tarteratutakoek- nazioarteko babes tresna den asilo eskubidea, eguneroko baldintza sozialetara birmoldatzea eta jazarpen mota berriak biltzea beharrezkoa dela azalera dutela. Horretarako, paradigma berrien inklusioa bultzatzea beharrezkoa da, bai -lotesleak izan beharko luketen- nazioarteko Gidalerroen bidez, baita arrazoinamendu judizialen bidez ere. Hortaz, eta hori guztia erdieste aldera, presente eduki behar dugu genero interpretazioaren balioa, emakumeen giza eskubideen babesa sustatuko duen tresna ez ezik, beharizan estrategikoa ere badelako emakumeen esperientziak kontuan hartuko dituzten analisi metodoak errotzeko, opresio mota ezberdinak eta dinamikoak daudela ulertzeko eta zuzenbidea, emakumeen neurrira egiteko -baita asiloaren materialian ere.

VII. Bibliografia

1. Legedia eta dokumentu ofizialak

1.1. Nazioarteko legedia eta beste motatako dokumentu ofizialak

Europako Kontseilua: Emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeriaz ohartarazteko Hitzarmena, 2011ko maiatzaren 11, Istanbul, eskuragarri: <https://www.coe.int/en/web/conventions/full-list/-/conventions/rms/090000168008482e>

Europako Kontseilua: Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak babesteko Europako Hitzarmenaren, 1950eko azaroaren 4, Erroma, eskuragarri: https://www.echr.coe.int/Documents/Convention_SPA.pdf

Europako Kontseilua: PACE calls for prohibition and penalisation of gender-based human rights violations, 2009ko apirilaren 28, eskuragarri: <http://assembly.coe.int/ASP/Press/StopPressView.asp?ID=2168>

Europar Komisioaren COM(2013) 833 Komunikazioa: Emakumeen mutilazio genitalaren ezabapenerantz, 2013ko azaroaren 25, eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52013DC0833&from=ES> [2020/05/19]

Europar Parlamentuaren 2000/2174 Ebazpena: Emakumeak eta Fundamentalismoa, A5-0365/2001, 2001eko urriaren 25, eskuragarri: <https://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//NONSGML+REPORT+A5-2001-0365+0+DOC+PDF+V0//ES> [2020/05/24]

Europar Parlamentuaren 2001/2035 Ebazpena: Emakumeen mutilazio genitala, A5-0285/2001, 2001eko irailaren 20, eskuragarri: <https://www.europarl.europa.eu/sides/getDoc.do?pubRef=-//EP//TEXT+TA+P5-TA-2001-0476+0+DOC+XML+V0//ES> [2020/05/20]

Europar Parlamentuaren 2011/95 Ebazpena: Nazioarteko babes, 2011ko abenduaren 13, eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32011L0095&from=ES> [2020/05/30]

Europar Parlamentuaren 463/26 Ebazpena: Emakumeen mutilazio genitala, 2018/C463/04, 2018ko otsailaren 7, eskuragarri: <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52018IP0033&from=EN> [2020/05/26]

Familien Batasun Erakundea (UNAF): La MGF en España, 2005, eskuragarri: <https://unaf.org/wp-content/uploads/2015/10/Guia-MGF-2015.pdf>

Garapenerako Nazio Batuen Programa (PNUD): Informe sobre Desarrollo Humano 2019, 2019ko abenduaren 9, eskuragarri: http://hdr.undp.org/sites/default/files/hdr_2019_overview_-_spanish.pdf [2020/05/6]

Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza (UNICEF): Strategic Plan 2018-2021, 2018ko urtarrila, eskuragarri: https://www.unicef.org/media/48136/file/UNICEF_Strategic_Plan_2018-2021_SP.pdf [2020/06/16]

Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza (UNICEF): What is female genital mutilation? 7 question answered (2019ko martxoaren 4), eskuragarri: <https://www.unicef.org/es/historias/lo-que-debes-saber-sobre-la-mutilacion-genital-femenina> [2020/03/18]

- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNCHR): Global Trends Forced Displacement in 2018, 2019ko ekainaren 20, eskuragarri: <https://www.refworld.org.es/docid/5d0acf594.html> [2020/06/16]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNCHR): Guías sobre las Solicitudes de Asilo relativas a la Mutilacion Genital Femenina, 2019ko maiatza, eskuragarri: <https://www.refworld.org.es/docid/4ac4b3782.html> [2020/05/03]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNCHR): Handbook on Procedures and Criteria for Determining Refugee Status under the 1951 Convention and the 1967 Protocol relating to the Status of Refugees, 2019ko urtarrila, eskuragarri: <https://www.unhcr.org/publications/legal/5ddfcdc47/handbook-procedures-criteria-determining-refugee-status-under-1951-convention.html> [2020/05/03]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNCHR): International Protection Guidelines: internal flight or relocation alternative, HCR/GIP/03/04, 2003ko uztailaren 23, eskuragarri: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2004/2551.pdf?file=t3/fileadmin/Doc%20mentos/BDL/2004/2551> [2020/05/05]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNCHR): International Protection Guidelines: Membership of a Particular Social Group, HCR/GIP/02/02, 2002ko maiatzaren 7, eskuragarri: <https://www.unhcr.org/publications/legal/3d58de2da/guidelines-international-protection-2-membership-particular-social-group.html> [2020/05/09]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNCHR): International Protection Guidelines: Gender Related Persecution, HCR/GIP/02/01, 2002ko maiatzaren 7, eskuragarri: <https://www.unhcr.org/publications/legal/3d58ddef4/guidelines-international-protection-1-gender-related-persecution-context.html> [2020/05/09]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritza (UNCHR): Symposium on Gender-Based Persecution, *International Journal of Refugee Law* 9, 1996ko otsaila, eskuragarri: https://academic.oup.com/ijrl/article-abstract/9/Special_Issue/11/2884367?redirectedFrom=fulltext [2020/05/09]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritzaren Komiteak (UNCHR): XXXVI Ondorioa, 1985, eskuragarri: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2002/0550.pdf> [2020/06/13]
- Iheslariantzako Nazio Batuen Goi Mandataritzaren Komiteak (UNCHR) (s.f), eskuragarri: <https://eacnur.org/es/convencion-de-ginebra-de-1951-el-estatuto-de-los-refugiados> [2020/04/07]
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Emakumearen kontrako bereizkeria modu guztiak ezabatzeko Aldarrikapena, 1993ko abenduaren 20, 85. sesioa, eskuragarri: <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/violenceagainstwomen.aspx>
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Emakumeen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Hitzarmena (CEDAW), 1979ko abenduaren 18an, eskuragarri: <https://www.ohchr.org/sp/professionalinterest/pages/violenceagainstwomen.aspx> [2020/03/30]
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioa, 1951ko uztailaren 28, 189. seriea, eskuragarri: <https://www.acnur.org/5b0766944.pdf>

- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Errefuxiatuen Estatutuari buruzko New Yorkeko Protokoloa, 1967ko urtarrilaren 31, 606. seriea, eskuragarri: <https://www.acnur.org/5b076dcd4.pdf>
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 1948ko abenduaren 10ean, 217 A (III) Ebazpena, eskuragarri: https://www.ohchr.org/EN/UDHR/Documents/UDHR_Translations/bsq.pdf [2020/03/28]
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Haurren Eskubideen Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20, eskuragarri: <https://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf> 20 [2020/03/30]
- Nazio Batuak, Batzar Orokorra: Tratatuaren zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioa, 1969ko maiatzaren 23, 331. seriea, eskuragarri: http://www.oas.org/36ag/espanol/doc_referencia/convencion_viena.pdf
- Nazio Batuak, Emakumearen IV. Mundu Konferentzia. 1995ko irailaren 4-15, eskuragarri: <https://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/Beijing%20full%20report%20S.pdf> [2020/04/5]
- Nazio Batuak, Kontseilu ekonomikoa eta soziala: Emakumeen osasuna kaltetzen dituen praktika tradizionalak, Halima Embarek Warzazi errelatorea, E/CN.4/Sub.2/2005/36, 2005eko uztailaren 11, eskuragarri: https://catedraunescodh.unam.mx/catedra/mujeres_ORIGINAL/menu_superior/Doc_basicos/5_biblioteca_virtual/9_informes/Otros/47.pdf [2020/04/11]
- Nazio Batuak, Kontseilu ekonomikoa eta soziala: Emakumeen osasuna kaltetzen dituen praktika tradizionalak, Radhika Coomaraswamy errelatorea, E/CN.4/1998/54/Add.1, 1998ko otsailaren 4, eskuragarri: <https://digitallibrary.un.org/record/251111?ln=es> [2020/04/10]
- Nazio Batuak, Kontseilu ekonomikoa eta soziala: Eskubide politikoak zein zibilak eta erlijioarekiko intolerantzia, Abdelfattah Amor errelatorea, E/CN.4/2002/73/Add.2, 2009ko apirilaren 24, eskuragarri: <https://undocs.org/E/CN.4/2002/73/Add.2> [2020/04/10]
- Nazio Batuak, Kontseilu ekonomikoa eta soziala: Familia-giroan ematen diren praktika kulturelek berekin dakartzaten emakumearen kontrako indarkeria, Radhika Coomaraswamy errelatorea, E/CN.4/2002/83, 2002ko urtarrilaren 31, eskuragarri: <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2005/3399.pdf> [2020/04/10]
- Nazio Batuak, Populazioaren eta Garapenaren Nazioarteko Konferentzia: Gizarte ekintza plana, 1994ko irailaren 13, eskuragarri: https://www.unfpa.org/sites/default/files/pub-pdf/icpd_spa.pdf [2020/04/5]
- Nazio Batuak: Human Rights (s.f.), eskuragarri: <https://www.un.org/en/sections/issues%20depth/human-rights/index.html> [2020/04/07]
- Nazio Batuen Batzar Orokorraren 36/55 Ebazpena: Erlijioan edo Konbikzioetan oinarritutako bereizkeria modu guztiak ezabatzeko Aldarrikapena, 1981ko azaroaren 25, eskuragarri: <https://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/ReligionOrBelief.aspx> [2020/03/28]
- Nazio Batuen Batzar Orokorraren 56/128 Ebazpena: Emakumeen osasuna kaltetzen dituen praktika tradizionalak, A/56/128, 2002ko urtarrilaren 30, eskuragarri: <https://undocs.org/pdf?symbol=es/A/RES/56/128> [2020/05/10]

Nazio Batuen Batzar Orokorraren 67/146 Ebazpena: EMG-aren ezabapenerako esfortzuen areagotzea, A/RES/67/146, 2013ko martxoaren 13, eskuragarri: <https://undocs.org/A/RES/67/146> [2020/05/10]

Nazio Batuen Batzar Orokorraren 70/01 Ebazpena: 2016-2030 Agenda Garapen Iraunkorrerako Helburuak gure mundua eraldatzeko, 2015ko irailaren 25, eskuragarri: <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/gender-equality/> [2020/04/10]

Osasun Mundu Erakundea, Osasun Ugalketa Saila: Eliminating female genital mutilation, 2008, eskuragarri: https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/43839/9789241596442_eng.pdf;jsessionid=2020/05/28

Osasun Mundu Erakundea: Female Genital Mutilation, 2020ko otsailaren 3ko ohar deskribatzailea, eskuragarri: <https://www.who.int/es/news-room/factsheets/detail/female-genital-mutilation> [2020/06/1]

Populazio Gaietako Nazio Batuen Funtza (UNFPA): Annual Report 2018, 2019ko apirila, eskuragarri: https://www.unfpa.org/sites/default/files/pub-pdf/UNFPA_PUB_2018_EN_Annual_Report_3.pdf [2020/06/16]

1.2. Espainiar legedia eta beste motatako dokumentu ofizialak

Espainiar Konstituzioa, 29/12/1978, 311. zenbakia, EAO.

5/1984 Legea, martxoaren 26koa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen duena, 1984/03/27, 74. zenbakia, EAO.

6/1985 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Botere Judizialarena, 1985/07/02, 157. zenbakia, EAO.

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodearena, 1995/11/24, 281. zenbakia, EAO.

12/2009 Lege Organikoa, urriaren 30ekoa, asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen duena, 2009/10/31, 263. zenbakia, EAO.

203/1995 Errege Dekretua, otsailaren 10ekoa, asilo-eskubidea eta errefuxiatu-izaera arautzen dituen martxoaren 26ko 5/1984 Legea aplikatzeko erregelamendua onartzen duena eta 9/1994 Legeaz aldatuta, 1995/03/02, 52. zenbakia, EAO.

Espainiako Gobernuak, Osasun Ministerioa, Emakumeen Mutilazio Genitalaren aurreko osasun Protokoloa, 2015eko otsaila, Madril.

2. Jurisprudentzia

2.1. Nazioarteko jurisprudentzia

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (IV Atala). *Abraham Lunguli v. Suedia* kasua. 33692/02 erabakia, 2003ko uztailaren 7.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (III Atala). *Agbotain I Osakpolos Omoregbee Elemna v. Suedia* kasua. 26834/05 erabakia, 2007ko otsailaren 1.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (III Atala). *E. Collins eta A. Akaziebie v. Suedia* kasua. 23944/05 erabakia, 2007ko martxoaren 8.

Amerikako Estatu Batuen Apelazio Auzitegia (VI Zirkuitua). *Yayeshwork Abay and Burhan Amare v. John Ashcroft* kasua, 2004ko maiatzaren 19, eskuragarri: <https://www.refworld.org/pdfid/40b30ae14.pdf> [2020/05/25]

Board of Immigration Appeals. *In re Fauziya Kasinga* kasua, 3278 erabakia, 1996ko ekainaren 13, eskuragarri: https://www.refworld.org/cases,USA_BIA,47bb00782.html [2020/05/25]

2.2. Espainiar jurisprudentzia

Auzitegi Gorenaren (Administrazioarekiko Auzien Sala, 5. atala) 3673/2008 sententzia, 2008ko uztailearen 4.

Auzitegi Gorenaren (Administrazioarekiko Auzien Sala, 5. atala) 2781/2009 sententzia, 2009ko maiatzaren 11.

Auzitegi Gorenaren (Zigor Sala, 1. atala) 7827/2012 sententzia, 2012ko urriaren 31.

Auzitegi Gorenaren (Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. atala) 7117/2014 autoa, 2014ko uztailearen 17.

Auzitegi Nazionalaren 1898/2004 sententzia, 2004ko martxoaren 17.

Auzitegi Nazionalaren 4675/2014 sententzia, 2014ko azaroaren 24.

Auzitegi Nazionalaren 2734/2006 sententzia, 2006ko ekainaren 21.

Auzitegi Nazionalaren 846/2001 sententzia, 2001eko otsailaren 9.

Auzitegi Nazionalaren 811/2004 sententzia, 2004ko otsailaren 10.

Auzitegi Nazionalaren 1159/2006 sententzia, 2006ko martxoaren 24.

Terueleko Audentzia Probintzialaren 197/2011 sententzia, 2011ko azaroaren 15.

3. Doktrina eta beste motatako dokumentuak

AGIRREGOMEZKORTA IBARLUZEA, R. B., e I. FUERTES CABRERA (2011): «La ablación o mutilación genital femenina. Guía práctica» Área de Participación Ciudadana, Inmigración y Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Málaga [on-line] eskuragarri hemen: < <https://docplayer.es/9152342-La-ablacion-o-mutilacion-genital-femenina-guia-practica.html> > [2020/04/14]

BODELÓN, E. (2009): «Feminismo y derecho: Mujeres que van más allá de lo jurídico», Gemma Nicolás eta Encarna Bodelón (konp.) *Género y dominación: Críticas feministas del derecho y el poder*, Barcelona: Anthropos Editorial, 95-116.

BOYLE, E. H. (2002): «Female Genital Cutting: Cultural Conflict in the Global Community», *The Journal of Modern African Studies* 43/3, 497-499.

CEAR-Euskadi. (2009): Espainiako asilo-sistema, emakumeen eta lesbianen, gayen, bisexualen eta transexualen giza eskubideen urraketari dagokionez.

CEAR-Euskadi. (2013): Asiloaren babesa, genero-arrazoiengatikoz jazarpenaren aurrean.

CONNORS, J. (1997): «Legal Aspects of Women as a Particular Social Group», *International Journal of Refugee Law*, Special Issue, 114-128.

CRAWLEY, H. (2001): *Refugees and Gender: Law and Process*. Bristol: Jordan Publishing Limited.

- EMAKUNDE. (2014): Diagnostikoa emakumeen genitalen mutilazioa euskal autonomia erkidegoan. Gasteiz.
- FALCÃO, R. (2017): «Historicidad de la MGF de las agendas ANTI-MGF», Adriana Kaplan eta Laura Nuño (konp.) *Guía multisectorial sobre Mutilación Genital Femenina*, Madrid: Editorial Dykinson, 33-37.
- FONTENLA, M. (2008): «Patriarcado. ¿Qué es el patriarcado?», Susana Gamba (konp.) *Diccionario de estudios de género y feminismos*. Buenos Aires: Editorial Biblos, 33-37.
- GARCÍA BUENO, M. P. (2016): *Manual de Prevención de la Mutilación Genital Femenina: Buenas Prácticas*. Bigarren edizioa. Madrid: Confederación Nacional Mujeres en Igualdad.
- GARCÍA DE HERREROS MADUEÑO, T.; GARABATO GONZÁLEZ, S.; MARTÍNEZBLANCO, M.L. (konp.) eta Lan Taldea. (2017): «Guía de actuaciones sanitarias para la prevención de la Mutilación Genital Femenina en la Comunidad de Madrid: Red de Prevención de la Mutilación Genital Femenina en la Comunidad de Madrid» [on-line] eskuragarri hemen: <https://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/IgualdadDeOportunidades/Publicaciones/Mutilación%20genital%20femenina/Guia_actuaciones_sanitarias_MGF.pdf> [2020/04/14].
- GARCÍA RUIZ, Y. (2007): «Derecho de asilo y mutilación genital femenina». Madrid: Fundación Alternativas [on-line] eskuragarri hemen: <https://www.fundacionalternativas.org/public/storage/estudios_documentos_archivos/xmlexport-IXkVH8.pdf> [2020/04/22].
- GOMBAU GIMÉNEZ, L. (2018): *Complicaciones Obstétrico-Ginecológicas en Mujeres Procedentes de Países de Riesgo de Ablación/Mutilación Genital Femenina: Estudio Comparativo*. Doktore tesia. Murtziako Unibertsitatea <<https://digitum.um.es/digitum/handle/10201/64541>>
- GOÑI URRIZA, N. (2007): «Cuestiones internacionales: la concesión de asilo por violencia de género», Pilar Rivas eta Guillermo Barrios (konp.) *Violencia de Género. Perspectiva multidisciplinar y práctica forense* 235. Navarra: Thomson Editorial.
- GOODWIN-GILL, G. (1996): *The Refugee in the International Law*. Oxford: Clarendon.
- HATHAWAY, J. (1991): *The law of Refugee Status*. Toronto: Butterworths.
- HERMIDA DE LLANO, C. (2017): «La mutilación genital femenina desde la perspectiva jurídica española» *Bajo Palabra* 15, [on-line] eskuragarri hemen: <<http://dx.doi.org/10.15366/bp2017.15.005>> [2020/03/28].
- JIMÉNEZ SÁNCHEZ, C. (2017): «La persecución de género en el derecho internacional de los refugiados: nuevas perspectivas» *Revista Electrónica de Estudios Internacionales* 33, [on-line] eskuragarri hemen: <DOI: 10.17103/reei.33.05> [2020/05/18].
- KAHALE CARRILLO, D. (2011): «Derecho de asilo y persecución por motivos de género», Isabel Vázquez Bermúdez (konp.) *Actas del III Congreso universitario nacional Investigación y género*. Sevilla: Unidad de Igualdad Universidad de Sevilla, 975-989.
- KAPLAN, A. (2004): «Salud y derechos sexuales y reproductivos en la población senegambiana: tradición, identidad e integración social», Francisco Checa (konp.) *Inmigración y derechos humanos*, Barcelona: Icaria Editorial, 206-211.
- KAPLAN, A., eta H. BEDOYA (2006): «Las mutilaciones genitales femeninas en España: una visión antropológica, demográfica y jurídica», De Lucas (konp.) *Europa, derechos culturales* 10. Valencia: Editorial Tirant lo Blanch, 14-49.

- KAPLAN, A., eta NUÑO, L. (2017): «Guía Multisectorial de Formación Académica sobre Mutilación Genital Femenina». Madrid: Dykinson [on-line] eskuragarri hemen: <<https://mapfgm.eu/wp-content/uploads/2017/04/Guia-Castellano.pdf>> [2020/06/14].
- KAPLAN, A., P. TORÁN, K. BERMÚDEZ eta M.J. CASTANY. (2006): «Las mutilaciones genitales femeninas en España: posibilidades de prevención desde los ámbitos de la atención primaria de salud, la educación y los servicios sociales», *Migraciones* 19, 189-217.
- KOSINSKA, A. (2020): *Cultural rights of third-country nationals in EU law*. Switzerland: Springer Nature.
- LEYE, E. (2017): «Consecuencias de la MGF», Adriana Kaplan eta Laura Nuño (konp.) *Guía multisectorial sobre Mutilación Genital Femenina*, Madrid: Dykinson, 40-43.
- LEYE, E. (2017): «Leyes penales en la Unión Europea», Adriana Kaplan eta Laura Nuño (konp.) *Guía multisectorial sobre Mutilación Genital Femenina*, Madrid: Dykinson, 110
- LEYE, E., J. DEBLONDE, J. GARCÍA, S. JOHNSDOTTER, A. KWATENG, L. WEIL eta M. TEMMERMAN. (2007): «An analysis of the implementation of laws with regard to female genital mutilation in Europe», *Crime, Law and Social Change* 47, 1-31 [on-line] eskuragarri hemen: <<https://doi.org/10.1007/s10611-007-9055-7>> [2020/04/01].
- LÓPEZ GARRIDO, D. (1991): *El derecho de asilo*. Ministerio de Asuntos Sociales.
- MACKINNON, C. (2007): *Women's lives, men's laws*. Belknap Press of Harvard University Press.
- MAQUIEIRA, V., eta T. VALLE (2006): *Mujeres, globalización y derechos humanos*. Universitat de València e Instituto de la Mujer, Madrid: Ediciones Cátedra.
- MIGUEL JUAN, C. (2008): «La mutilación genital femenina, derecho de asilo en España y otras formas de protección internacional», *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho* 17 [on-line], eskuragarri hemen: <https://www.uv.es/CEFD/17/carmen_miguel.pdf> [2020/04/27].
- MIGUEL JUAN, C. (2014): *Una mirada feminista al derecho internacional de los derechos humanos y al derecho internacional de las personas refugiadas*. Doktore tesia. Valentziako Unibertsitatea <<http://hdl.handle.net/10550/35903>>
- MUSALO, K. (2003): «Revisiting Social Group and Nexus in Gender Asylum Claims: A Unifying Rationale for Evolving Jurisprudence», *DePaul Law Review* 52, 777-808 [on-line], eskuragarri hemen: <http://repository.uchastings.edu/faculty_scholarship/569> [2020/04/29].
- PANIKKAR, R. (2006): *Paz e interculturalidad. Una reflexión filosófica*, Barcelona: Herder Editorial.
- PÉREZ VAQUERO, C. (2011): «Las Mutilaciones Genitales Femeninas en la Unión Europea», *Derecho y cambio social* 26.
- RANDALL, M. (2002): «Refugee Law and State Accountability for Violence against Women: A comparative Analysis of Legal Approaches to Recognizing Asylum Claims Based on Gender Persecution», *Harvard Women's Law Journal* 25, 281-318 [on-line], eskuragarri hemen: <<https://ssrn.com/abstract=1473162>> [2020/06/03].
- RUBIN, G. (1975): «The Traffic in Women: Notes on the 'Political Economy' of Sex», Rayna R. Reiter (argitz.) *Towards an antropology of Women*, Monthly Review Press, Nueva York/Londres, 157-210.
- RUIZ BRAVO, P. (1999): «Una aproximación al concepto de género», *Sobre derecho y discriminación*, Lima: Pontificia Universidad Católica del Perú Defensoría del Pueblo.
- SANTOLAYA, P. (2000): «Derecho de asilo y Persecución relacionada con el sexo», Teresa Freixes (konp.) *Mujer y Constitución*, Madrid.

- SANTOLAYA, P. (2011): *El derecho de asilo en la Constitución Española*. Valladolid: Lex Nova.
- SHWEDER, R. A. (2002): «What about female genital mutilation? and why understanding culture matters in the first place», Richard Shweder, Martha Minow eta Hazel Rose Markus (argizt.) *Engaging Cultural Differences: The Multicultural Challenge in Liberal Democracies*, Nueva York: Russell Sage Foundation, 216-251.
- SILVA CUESTA, A. (2017): *La mutilación genital femenina: aspectos jurídico-penales, tesis doctoral inédita*. Doktore tesia. Granadako Unibertsitatea <<http://hdl.handle.net/10481/47381>>
- SUCIU DORINA, C. (2016): «El principio de jurisdicción universal en España y en algunos países de nuestro entorno: un análisis de la legislación y la práctica judicial» Dialnet [on-line] eskuragarri hemen: <<https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/6056712.pdf>> [2020/05/2].
- THILL, M. (2017): «Leyes penales en África, Oriente Medio y Asia», Adriana Kaplan eta Laura Nuño (konp.) *Guía multisectorial sobre Mutilación Genital Femenina*, Madrid: Editorial Dykinson, 107-109.
- TORO HUERTA, M. (2012): *La declaración universal de derechos humanos*, Mexico: Comisión Nacional de los Derechos Humanos.
- TORRES FERNÁNDEZ, M. E. (2008): «La mutilación genital femenina, un delito culturalmente condicionado», *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho* 17 [on-line], eskuragarri hemen: <<https://www.uv.es/CEFD/17/torres.pdf>> [2020/04/27].
- VAN DER GAAG, N. (2005): *En lucha: las mujeres y sus derechos*, Barcelona: Dossiers para entender el mundo, Intermón-Oxfam.
- WALLEY, C. (1997): «Searching for "voices": Feminism, Anthropology, and the Global Debate over Female Genital Operations», *Cultural Anthropology* 12/3, 405-438.